

ELKARRIZKETA: JUAN CARLOS ALONSO • ESPERIENTZIA: GATAZ-
KAK KONPONTZEN • ESPERIENTZIA: ETORKINAK ETXEKOTZEN •
GALDEIDAZUE: JOSE MARIA SETIEN • "EL DROGAS"

hh
hik hasi

109

5 EURO • 2006KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Uda giroko aisialdia

ONARRIZKO GAITASUNAK LANTZEKO KOADERNOAK

IKUSMEN JOKOAK



ORIENTAZIO JOKOAK

LOGIKA JOKOAK

OPORRETAKO KOADERNOAK



*Jolas eginez eta ondo pasatuz
ikasitakoa ahaztu gabe edukitzeko aproposak.*

aurkibidea



8
gaia

UDA GIROKO AISIALDIA

Haurren oporrak irudikatzen hasita, udalekuak, kanpaldiak, auzolandegiak, irteerak eta beste hamaika aukera datozkigu burura. Uda garaian aisialdiak eskaintzen dituen aukerak dira, eskolatik at dauden beste heziketa gune batzuk. Harremanek eta elkarbitzak indar handia hartzen duten bizipenak.



16
elkarrizketa

JUAN CARLOS ALONSO

Ipuinen munduan murgildu gaituen psikologo eta irakasleak ipuinak eta beldurrak uztartu ditu. Ipuinetako beldurrak, haurren beldurrak, helduen beldurrak... horien garrantziaz eta beharraz dihardu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

UDA GIROKO AISIALDIA

16 elkarrizketa

JUAN CARLOS ALONSO

24 esperientzia

Gatazkak konpontzen ikasi dute Zamakola ikastetxean

28 esperientzia

Ikasle etorkinak etxekotzen

Hernaniko La Inmaculada ikastetxean

31 ekarpena

Alboan fundazioa herrien elkartasunaren alde lanean

34 galdeidazue

Jose Maria Setien

37 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Hizkuntzaren transmisioa familia da gakoa

Helena Baraibar eta Kristina Boan


42 Atzeko atetik

Enrique Villarreal "El Drogas"

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño, Matilde Sainz eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtZA S.A.L. Azaleko irudia: Udalekuak (Ikastolen Elkarte). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-V-12). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

euskal kultura...



Frank Zappa



Frank Zappa



Frank Zappa



Julio Cortázar

artea
musika
antzerkia
literatura
zinema

...

hilabetero patxadaz eta
gozamenez irakurtzeko



Julio Cortázar

948 22 71 25

telefonora deitu edo
nabarra@nabarrera.com
posta elektronikora
idatzi, zure datuak utzi*,
eta Nabarra aldizkaria
bi hilabetez dohainik
jasoko duzu etxean

(*) izen abizenak, hurbidura eta telefonoa

NABARRA
BARRA

www.nabarra.com

editoriala

ekaina

100 urte Elbira Zipitria andereñoa jaio zela (Zumaia 1906 - Donostia 1982)



Kontuan izanik Elbira Zipitriak Espainiako 36ko gerra aurretik, eta, batez ere, gerra ondorengo ikastolen hasieran izan zuen eragina, esan daiteke hura izan zela euskal eskolaren gerra aurreko eta gerra ondorengo mugimenduak lotu zituen.

1906ko maiatzaren 28an Zumaian jaiotako Elbira Zipitria andereñoak Donostiako lehen euskal etxe-eskola sortu zuen 1946. urtean, diktadura garaian.

Ez zen hori izan, ordea, euskal irakaskuntzan egin zuen lehen lana, 36ko gerrak eten baitzuen Donostiako Alde Zaharrean muñoatarren ikastolan hasia zuen hezkuntza ibilbidea. Urte hartan, gerratik ihes egin zuen arrantza-ontzi batean eta 1939an itzuli zen lapurdiko Saratik Donostiara.

Etxe-ikastolen esperientzia haren bitartez, gerra aurreko belaunaldiaren ekarpenari eta 60ko hamarkadan eratu zen ikastolen mugimenduari lotura eman zion, eta horrek ahalbidetu zuen euskararen proiektua bere osotasunean eta jarraipen historikoarekin garatzea.

Garai hartan, Euskal Herriak eskola librea, modernoa, euskalduna, europarra, berria... behar zuen, eta, behar horretatik abiatuz, Elbirak jakin zuen ikastola izango zenaren lehen hazia

ereiten; gerra ondorengo hezkuntza sistema ilunean bere lekua egin zuen.

Elbira Zipitria euskal irakaskuntzaren alde borrokan aritu zen bere bizitza osoan, euskaraz irakasten zen lekuetan egin baitzuen lana beti. Gainera, hizkuntzaz euskalduna zen eskolaz gain, edukiz eta formaz berezia izango zen irakaskuntza nahi zuen.

Europara zabalik zituen begiak; gertatzen ari ziren berrikuntza pedagogikoei eta garaiko adituak burutzen ari ziren punta-puntako ikerketei adi egoten jakin zuen. Horiek guztiak ekarri zituen Euskal Herrira eta irakasteko bere metodo propioa gorpuztu zuen.

Dena den, askotan, garatu zituen ideien eta egin zuen praxiaren arteko kontraesanek markatu zuten haren bizia, hein handi batean.

Urte ilun haietan jorratu zituen arloak muturreraino eramane zituen. Hala, abertzaletasuna, euskara, euskara baituaren aurkako gurutzada, ikastola...

bere bizitzako zio bihurtu zituen.

Idea iraultzaileak izan zituen, eta klase kontzientzia handikoa zen: langileen aldekoa eta burgesiaren kontra, feminista, erlijioa bere erara interpretatu zuen, bizitzeko behar zuena soilik zuen, diskrezioa gorai patzen zuen... balio erabat iraultzaileak garai hartarako.

Asko gustatzen zitzaion munduari begiratzea, interes handia zuen, baina etorkizunari begiak eta bihotza itxi zituen; ez zuen jakin berak hainbeste borrokatu eta defendatu zituen ildo berri haietan aurrera egiten. Bere ideietan itxi eta itsutu zuen. Jarrera horrek sentimendu kontrajarriak piztu zituen bere ingurukoengan, kontrako jarrera eta sentimendu asko sorrarazi zituelarik.

Bere jaiotzaren mendeurrenean, jaso beza Elbirak Hik Hasiko kideon oroimena eta esker ona. Balia dezagun mendeurrena Elbira eta haren lana hobeto ezagutzeko.

kronika

Ikas-Bik, urteroko jai ospatzearekin batera, aurten 20 urte bete ditu eta hori ere ospatu du. Ehunka lagun bildu ziren Donibane Lohitzunen. Ospakizunekin batera, hogeituroteotako ibilbideari gainbegirada bat eman zioten. Euskarazko eredu elebiduna ezartzeko garaian, Hezkuntza Misterioaren jarrera itxiarekin egin dute topo urte hauetan eta izugarri kostatu izan da gela elebidunak irekitzea eta mantentzea. Orain, Euskararen Erakunde Publikoaren sorrerarekin, gauzak alda daitezkeela somatzen dute. Erakunde horretako lehendakari Max Brissonnek jaialdian parte hartu zuen, eta 2006-2010eko hizkuntza politika zehazten ari direla adierazi zuen. Hemendik aitzina gatazkarik gabe egin ahalko dela aurrera iragarri zuen.



Nafarroako hezkuntza sindikatuek greba deitu dute sare publikoan

Nafarroako hezkuntzako sindikatu guztiek bat egin dute maiatzaren 31rako greba deialdia egiteko. Orain arte Hezkuntza Departamentuarekin hizketan ari ziren 6.000 irakasleren lan baldintzak arautzen dituen akordioa egiteko. Izan ere, 2001-2004koa agortuta dago eta ez dute berririk sinatu. Administrazioaren jarrera ikusirik, ordea, negoziazio mahaia utzi eta kalera ateratzea erabaki dute, administrazioari jarrera alda dezan eskatzeko. Sindikatuen esanetan, "baldintza baxuenetan negoziatu nahi du, eta abiapuntua orain arteko akordioa baino baxuagoa da". Horregatik, "orain arteko baldintzak beteko dituela

bermatu arte idatziz", ez direla itzuliko negoziazio mahaia adierazi dute sindikatuek.

Elortzibarren ikastolarik ez oraingo

Herriko administrazioaren trabak jasan ditu Elortzibarko Ikastolen Batzordeak ere. Noain eta Elortz inguruko guraso talde bat ikastola sortu nahian dabil, gaur egun euskaraz ikasi nahi baldin badute Iruñeko ikastetxe publikoetara edo Zizur Txikiko San Fermin ikastolara joan beharra baitute. Dena dela, ahalegina bere horretan utzi dute memento, lursail egoki bat erosteko zailtasunak direla-eta. Prentsa ohar baten bidez Udalaren trabak salatu dituzte.

Euskal eskola publiko berriaren aldeko jai arrakastatsua

Maiatzaren 21ean 25.000 lagunetik gora elkartu ziren euskal eskola publiko berriaren aldeko jaietan. Sortzen-Ikasbatuazek eta Patxi Larrainzar ikastetxeko gurasoek antolatuta, jai eta aldarrikapena batu ziren. Edonola ere, hutsune bat nabaritu zuten: aurten, azken urteetan ez bezala, Eusko Jaurlaritzako ordezkariarik ez da joan. Nafarroako Gobernuari dagokionez, betiko moduan, ez du inor bidali.

Gizarte arrazionalizatu bat pentsatzeko saioak porrot egin du.

Alain Touraine



“Bai Eskolak Euskalduntzeari!” berretsi dute ozen herritarrek

Urtarrilean hasitako kanpaina manifestaldi jendetsuarekin amaitu da. Herritarren aldetik babes handia jaso du. Jasotako sinadurak hainbaterakunderi aurkeztuko dizkiete antolatzaileek, bai haiek eta bai gainerako eragileek ere konpromisoak har ditzaten helburua lortzeko: euskalduntzen duen hezkuntza politika ezartzea.

EILASek kongresu orokorra eta LABek nazio biltzarra ospatu dituzte

EILASek VIII. kongresua burutu berri du eta datozen urteetako lan ildoak zehaztu dituzte. Horrekin batera, Kontseilu Nazionaleko, Idazkaritza Nazionaleko eta Nazio Batzorde Iraunkorre-

ko kide berriak izendatu dituzte.

Kongresuaren ondoren erabakitako agiriak 126 puntu ditu, eta besteak beste, honako gaiak jorratzen ditu: euskara, eleaniztasuna, curriculum propioa, etorkinen artatzea, lan arriskuen prebentzioa eta Bolognako prozesua. Gai nagusia, ordea, hezkuntza sistema propioarena da. Berau diseinatzeko eta garatzeko eskubidea aldarrikatu dute, eta horren barruan, sare publikoa indartzea da EILASen xedea. “Irakaskuntza publikoak izan behar du hezkuntza sistemaren ardatz nagusia, hori berretsi dugu, hori baita dauden desorekei aurre egiteko modu bakarra. Horrekin esan nahi dugu administrazio publikoak izan behar duela zentroen jabe. Kudeaketa demokratikoa bermatu behar du, gainera, eta guztion eskubideak bermatu”.

LAB sindikatuak ere nazio biltzarra egin du “Irakaskuntza euskalduntzeko proposamena” aurkezteko. Urte eta erdi jardun dira Euskal Herri osoko irakaskuntza eredu etako euskararen egoera eta urteotako emaitzak aztertzen. Une honetan krisi egoeran gaude la ohartarazi dute. Aurrera begirako plangintza berri bat aurkeztu dute, eta lau zutabe izango ditu: politikoa, akademikoa, kulturala eta soziala. Horieta bakoitzean eman beharreko hainbat neurri eta datozen lau urterako lan ildoak ere zehaztu dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 23 lanbide ziklo kentzeko erabakia hartu du. Arrazoia ikasle kopuru baxua izan da. “Ziklo horietan behar adinako ikasle kopururik ez dago, eta dauden baliabideak hobeto erabiltzeko” hartu du erabakia Hezkuntza Sailak. Orain dela urte batzuk talde bat osatzeko gutxienez 10 ikasle behar zirela erabaki zen, eta sarritan kopuru hori bete ez arren, taldeak osatu izan dira. Zentzu horretan, azken hilabeteetan kontrol zehatzagoak egin dituzte hori neurtzeko eta saihesteko. Zikloak kentzeak ez omen du aurrekontu murrizketarik ekarriko.

Sindikatuak kezkatuta agertu dira erabakiarekin. Guztiek adierazi dute Hezkuntza Sailak ez duela inorekin kontsultatu eta erabakia bere aldetik hartu duela. Horrez gain, ziklo horietako irakasleekin zer gertatuko den ez dakite, eta horrek ere kezka eragin du. Azken urteetan ziklo horiek izan duten eboluzioa zein den jakin nahi dute.

GAIA

Uda giroko *aisialdia*





Egun luze eta eguzki-
tsuak iristen ari diren garai
honetan, Euskal Herriko
makina bat haur udalekue-
tara joateko prestatzen
hasiko dira. Badakite
motxilan zer sartu, ez
ostera zenbat oroitza pen
bizi, polit eta sakonekin
itzuliko diren. Urtero-
urtero, begirale eta haur
asko ibiltzen dira gustu,
egoera eta adinaren ara-
berako egitasmo anitze-
tan. Pedagogia integral bat
aurrera eramanez, espa-
zio ludikoak beste hainbat
balio sustatzeko gune
bihur daitezke.

Azken urteetan aldake-
tak eman dira aisialdi
antolatuaren bilakaeran,
eta hausnarketa egitea ere
beharrezkoa da.

G

Udan, gozatuz garatu

Uda atarian, aisialdiko egitasmoak
loratzen hasten dira. Antolatzaileak epe
luzean buru-belarri jardun ostean, begi-
raleak bildu, beharrezko bilerak egin
eta abentura hasteko prestatzen dira.

Esparru ez formalean, hezteko au-
kera aparta eskaintzen digute udako
egitasmoek; herria eta jendartea eral-
datzeko tresna indartsuak izanik eta di-
bertsio gune aproposak eraikiz. Haur
zein gazteentzat, esperientzia ahaztezi-
nak bihurtzen dira, beraien eguneroko
bizitzan egiten ez dituzten ekintzak bi-
zitzeko eta gozatzeko aukera ematen
dietelarik. Eta pertsona gisa garatzeko
erabat baliagarriak suertatzen dira.

Haurrentzat dena da berria

Haurra bere familia ingurunetik
urruntzen da aldi baterako, eta ondo-
rioz, egunerokotasunak sortzen dituen
behar anitzei aurre egin beharko die,
autonomia garatuz. Hala, eguneroko
bizitzaren hainbat eremu jorrazteko
parada egokitzen da, eta horrek, jar-
duera hezitailerako baldintza apro-
posak ematen ditu. Horrez gain, ingurune
berriak ezagutuz, naturarekin kontak-
tuan jarri eta esperientzia sakon eta go-
goangarria bizi dezakete haur zein gaz-
teek. Berdinen arteko harremanak lan-
tzeko aukera aberasgarria da, adiskide
berriak eginez eta taldean elkarbizitza
eremu batean biziz.

Begiraleak ez dira irakasle

Udako egitasmoen beste ezaugarri
esanguratsu bat, begiraleen papera au-
toritate eredu tradizionalerik bestelakoa
izan ohi dela da, harreman simetrikoa-
goak garatzeko eta sentitzeko aukera
emanez. Begiraleentzat etengabeko
formazioa suposatzen duen lana da eta
balioen lanketa egiteko aukera aparta,
beraien esperientziatik abiatuta. Izan
ere, haur taldeari beraien arteko anizta-
sunean eta elkarbizitzan laguntzeko,

lehendabizi begirale taldearen desber-
dintasunak onartu behar dira. Beraz,
begirale baten formazioan garrantzi-
tsua da norbere pertsonaren lanketa
egitea, taldean bizitzeko eta eredu ego-
kiak lantzeko prestatuz. Bestalde, kon-
tuan harturik begirale baten bizitza pro-
fesionala ez dela oso luzea izaten, ga-
rrantzizkoa da begirale taldeetan hala-
ko oreka bilatzea esperintziadun eta
berrien artean. Hezitzaileentzat espe-
rientzia sakona da; gizartean parte har-
tzeko modu bat da alde batetik, eta ha-
rreman politikak sortzeko gunea beste-
tik, kasu askotan diru iturria ere badela-
rik. Dena dela, jendartean hezitzaileen
lana ez dago behar beste baloratua, are
gutxiago irakasleen lana beste.

Antolatzaile ugari eta desberdinak

Udako egitasmoetan, curriculum
ofizialetatik eta egitura mugatzaile oro-
tatik at, metodologia eta hezkuntza fi-
losofia propioak aurrera eraman dai-
tezke, antolatzaileen esku geldituz
printzipio pedagogikoak. Urteekin,
antolatzailearen profila dibertsifikatu
egin da; egun, erakunde publiko orok,
erakunde pribatuak, herrietako edo
auzoetako taldeak, aisialdi, euskara
edo kirol elkarteak edota ikastetxeak
antolatzen dituzte udako egitasmoak.
Bakoitzaren arabera, oso desberdinak
izan daitezke baliabideak, egitasmoa-
ren diseinua, printzipio metodologi-
koak edota aisialdi hezitzailea ulertze-
ko modua.

Edonola ere, denek eskaintzen du-
te abentura batean murgiltzeko aukera.



Egitasmo motak

UDALEKU IREKIAK

3-11 adin tartekoentzat egin ohi diren egitasmoak dira. Beste egitasmoekin konparatuz, berezitasun bat dute: gaua bakoitzak bere etxean igarotzen duela. Normalean, asteko bost egunetan goizez egiten dira udaleku irekiak, kasu batzuetan, arratsalde ere bai. Begiraleek, elkartzeko puntuetan haurrak jaso eta herri zein auzoetan ekintza hezitzaile askotarikoak egiten dituzte, baita txangoak ere.



UDALEKU ITXIAK

7, 10 edo 15 eguneko egonaldiak dira, eta haurrak eta begiraleak gau eta egun elkarrekin egoten dira aurretik prestatutako aterpetxe batean, mendian, hondartzan edo bestelako ingurune batean.

Eguneroko bizitzan hainbat balio pedagogiko lantzeko eta harreman politik sortzeko leku apartak dira. Sari, ingurune eta lagun ezezagunekin elkartzen dira haurrak eta 24 orduko elkarbizitzak esperientzia politik sortzeko aukera ematen du. Tailerrak, txangoak eta bestelako ekintza bereziak egiten dira eta, batez ere, 6-12 urteko haurrentzat izan ohi dira.



EGONALDIAK

Udaleku batzuek gai zehatz bati denbora ugari eskaintzen diote, hala nola bertsoaritzari, ingelesaren irakaskuntzari, abentura ekintzei eta abar. Aisialdian oinarritzen den metodologia erabiliz, gazteek dibertsio eta ikaskuntzarako gune oparoa daukate.



TRUKEAK

Kultur aniztasuna eta elkarbizitzaren lantzeko egitasmo bereziak dira trukeak. Beste nonbaiteko gazte txoekin elkarbizitzaren eginez, bertako hizkuntza eta kultura ezagutzeko aukera izan dezakegu, eta era berean, gure herria, kultura eta hizkuntza hedatzeko.



AUZOLANDEGIAK

Herriko guneren bat berritzatu, mendigunetan bidexkak edo hesiak prestatu, eraikin zaharrak berreraiki, kolektibo zehatz batentzat edo herritarrentzat ekintza soziokulturalak prestatu... edozer gauza egin daiteke auzolandegi batean. Hori bai, gizarte proiektuetan oinarritzen diren lanak dira eta sarri, inguruneari lotuak. Goizez lana egitea eta arratsalde aisialdiko ekintzak egitea da ohikoena, betiere helburu hezitzaile zein ludikoekin. Auzolandegien eskaintza 15 urtetik 30 urtera arte luzatzen da.



KANPALDIAK

Aterpetxe finko batek eskaintzen dizkigun segurtasun, erraztasun eta mugen aldean, kanpaldia egitea bestelako aukera da. Bere ezaugarriak direla eta sortzen diren zailtasunak, elkarbizitzari beste oinarri bat emateko baliabide hezitzaileak bihurtzen dira; elkarlana eta talde antolakuntza funtsezkoak izanik. Kanpin dendetan egiten da lo eta ondorioz naturarekin harreman zuzena bermatzen duen egitasmoa da.



IBILALDIAK

Ibilbideak oinez zein bizikletaz egin ohi dira eta eskaintzen duten ahaleginagatik, gazteekin burutzen den ekintza izan ohi da. Leku askotarikoak ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen du, betiere, naturarekin kontaktuan egonez.



Iturria: Udako egitasmoen eskuliburua, Urtxintxa eskola



Uda Leku: Iparraldeko aukera



Hizkuntz normalizazioa lantzeko gune indartsuak izan daitezke udalekuak, eta horren adibide da Iparraldeko UDA LEKU elkarteak. Titto Aguerre eta bere lankideen helburu nagusia, eskolako eta hainbat inguruntako haurrei euskarazko zerbitzuak eskaintzea da, aisialdi edota eskolaz kanpoko jardueren alorrean.

Elkartea 1983. urtean sortu zen, haur zein gaztetxoentzat euskarazko hainbat egitasmo antolatzeke asmoz. Bost langile iraunkor daude egonaldiak, bilguneak zein ekintza puntualak antolatzeke. Guztira 50 bat begirale mugitzen dira. Urteekin, sektore zabal baten beharrei erantzuteko gai izan da, baina oraindik ere erronka ugari dituzte buruan.

Zein motatako egitasmoak antolatzen dituzue?

Gure jardueretan badira bi jarduerak mota; lehena, Uda Lekuren izaera definitzen duen mota, hots, egonaldiak eta bilguneak. Hor da zinez euskararen erabilpena gehien lantzen den alorra. Udaleku itxi batean astebetetz haurrak aktibitate berezi batzuen inguruan (surfa, zaldia, mendia, bidaia...) mintzaten dira. Bilguneak urte osoan matentzen diren zentro irekiak dira, asteazkenetan, opor txikietan eta opor handietan. Neguko egonaldiak ere burutzen dira opor garaian.

Beste aldetik, eta bigarren jarduerak mota moduan, haurrak batez ere aurrekoetara helarazteko ekintza puntualak ditugu. Adibidez, zine hamabostaldia. Iparraldeko hamar zinegelatan euskarazko filmak proiektatzen dira. Bestalde, orotariko animazioak ere egiten dira. Demagun, Ezpeletako guraso talde batek besta bat ospatzen duela, eta beraiek bildu bitartean, zerbitzu gisa haurrekin egotea eskatzen dutela. Hori ere eskaintzen dugu.

Zein haurrek hartzen dute parte Uda Lekuko ekintzetan?

2-14 urteko haurrak etortzen dira eta urte osoan gutxi gorabehera 500 haur mugitzen dira. Orain arte gehienak ikastolako haurrak baziren ere, orain parada dute gela

e-lebidunetarik datozen ere. Eta denak gurutzatzen dira. Gela elebidunetarik datoz, baina ez dira zinez elebidunak, nabarmena da euskara maila desberdina.

Aurrera begira, zein erronka dituzue?

Elkartea udalekuak antolatzeke sortu bazen ere, jarduerak aniztasuna ugaritu da. Egungo erronka, egonaldietan euskararen erabilpena indartzea da; hau da, "egonaldi" hitz hutsa, "egonaldi linguistikoa" bilakatzeko.

Bilguneei dagokionez, kopurua emendatzea. Dauzkagun biak Baionan eta Hendaiaren kokaturik daude, bi ingurumen soziodemografiko desberdinetan, eta hargatik, bakoitzak ezaugarri propioak ditu, nahiz eta hezkuntza proiektu berbera izan muina. Bi gune horietara inguruneke herri ugaritako haurrak datoz, baina ez da nahikoa. Hurbiltasuna bilatu nahi genuke, leku gehiagotan egin bilguneak: Kanbon, Hazparnen, Donibane Garazin, Urruñan... baina ez da egunetik biharamunera eta nahi bezain laster osatzen den egitasmoa.

"Egonaldi linguistikoekin" hizkuntzaren lanketa birplanteatu al duzue?

Bai. Orain arte jarduerak guztiak euskaraz egin dira, baina ez da nahikoa. Ikusten da euskararen erabilpen maila nahiko kaskarra dela haur gehiegirengan. Ikastoletako haurrez gain, sare publikoko haurrengana zabaldu izanak arriskuak dakartza hizkuntza aldetik, baina horren alde egin behar zen eta egin beharko da oraino ere aurrerantz.

Zein dira bilgune gehiago irekitzeko dituzuen arazo nagusiak?

Lehenik, hizkuntza politika. Orain, iduriz, botere publikoek erakusten dute ardu-

ra bat euskara mantentzeko eta garatzen joateko, beraz euskararen aldeko hizkuntza politika bati buruz hitz egiten hasi da, euskalgintzak berak urteetan aldarrikatutakoaren emaitza gisa definitu genezakeena. Hizkuntza politika hori hedatuko litzateke hainbat alorrean: irakaskuntzan, bizi sozialean, administrazioan... eta aisialdian ere bai. Beraz, alor horretan, ikusirik gure esperientzia eta zer ekintzek egiten duten ekarpen handiena euskararen alorrean, gure defenditu izan dugu euskara bultzatzeko bilguneak sortzea herri gehiagotan. Beraz, babes eske gaude, babes horrek gero ekarriko duelakoan ezagupen ofizial bat eta honen indarrean jartzeko finantzamendu eskema.

Nolakoa da begiraleen prestakuntza?

Begiraleek 4-5 urte irauten dute, beraz hezkuntza proiektua nahiko presente dagoela esan dezakegu, nahiz ez den hala kasu guzietan. Formazioari dagokionez, % 75ek izan behar du agiriduna. Hemen begiraleek, BAFA izeneko agiri bat dute. 8 egunetz barnetegi batean egon, 14 eguneko praktikak egin eta ondoren espezializazioa burutzen dute begirale ikasleek.

Euskaraz ala frantsesez?

Espero dut laster euskaraz edo elebidunetaz gutienetik egiteko modurik izatea. Etorbizuneko erronken artean begiraleen formazioaren gaia daukagu. Beste aldetik, Europan diplomoen homologazioek, Hegoaldeko begirale batek hemen lan egitea eta alderantziz ahalbidetzeko itxaropena daukagu, diplomoen parekotasuna, alegia.



Aukera bakoitza bere berezitasunekin



Hezkidetz beti gogoan

Hezkuntza ez formaleko proiektu orotan aurkitzen dugu hezkidetzaz zehar lerro gisa, baina ez da besterik gabe aurrera eramaten dugun intentzio bat. Begiraleen prestakuntzan lan asko egin daiteke benetan eragile hezkidetzailleak bihurtzea baldin bada helburua.

Besteak beste, landu egin behar dira neskatoekin eta mutilekin erabiltzen diren komunikatzeko moduak, arauak ezartzeko moduak, ematen ditugun ereduak, hizkera, espazioen erabilera, jarrerak eta portaerak, ekin-tzak...

Emaisia elkarteak, Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren eskutik sortu zen 1997an. Besteak beste, eskolaren hezkuntza ereduari garatzen ari den ikuspegi hezkidetzailera lantzen du, eskolarekin elkarlanean arituz zein ekimen propioak aurrera eramanez, betiere parekidetasuna helburu izanik. Elkar-teak eta Urtxintxako genero taldeak, aisialdiko begirale eta zuzendarien prestakuntzarako baliabide eta estrategiak eskaintzen ditu eta gaiaren inguruan lan ugari egin du: ikastaroak, buletinak, proiektuak, argitalpenak... Hona hemen arlo hau lantzeko interesgarriak izan daitezkeen zenbait argitalpen:

- *Jolas ez sexisten bilduma*
- *Andraisia ekimena*
- *Pentsatuz...Aisia, astia, emakumeak. Hainbat gogo*
- *Jarduera hezkidetzailerako esku-liburua*
- *Xake Mate: Astialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta*
- *Xake Mate: Astialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta*

Hiritik etxaldera

Egun daramagun bizitza estiloak, sarri, ez die uzten haurrei natur inguruneak ezagutzen, are gutxiago horietaz gozatzeko. Ondorioz, zaila da haur eta gazteek gure bizimoduak ingurumenean sortzen dituen ondorioen kontzientzia izatea. Ingurumen hezkuntza, zehar lerro gisa lantzeaz gain, esku-hartzearen helburu nagusia izan daiteke, aterpetxe eta baserri eskolen kasuan bezala. Euskal Herrian, anitzak dira ingurumen hezkuntzaren inguruko aisialdi aukerak.

Nafarroan, Ollo herrian, lau gazte "Gure sustraiak" aterpetxean udarako egonaldi eta udalekuak antolatzen ari dira, azken urteetan bezala. Urtean zehar, eskolak egun bat, bi edo hirutako egonaldiak burutzen dituzte eta astebukaeretan ere hainbat familia gerturatzeko dira. Baina, uda iritsi bezain laster, udalekuek datozen haur eta gazteei irekitzen zaizkie aterpetxeko ateak, Ollo bailararen edertasunean murgilduz.

Hainbat ingurumen programa eramaten dituzte aurrera, astebeteko eta hamar egunetako udalekuek. Tailer horiez gain, etxaldearen eguneroko funtzionamenduan parte hartzen dute, eta inguruneak ematen dituen baliabideez gozatzeko parada izaten dute. Baratza eta laborantza moduak, basoa, landareak, animalia ugari eta beste hainbat elementu ikusi eta lantzen dira,



tailer orotarikoen bitartez. Horiez gain, kirol ekintzak eta sormen tailer ugari eramaten dira aurrera. Hori guztia, jarrera kritikoa eta kontsumo arduratsua sustatu nahian.

HARITZA PROGRAMA

- Ingurunean paisaia, landare eta animaliak ezagutzeko eta inguruerikiko errespetua lantzeko: hariz-tian hainbat ibilbide, landare eta animalien klasifikazioa eta paisaia ezagutu eta aztertzen dira.

ENERGIA PROGRAMA

- Hainbat energia iturri ezagutzeko: zentroko eguzki plakak eta aerogeneradorea zein beste egitura elektriko batzuk ezagutzen dira. Energia iturrien beharrez kontziente eginez eta aurreztearen garrantzia ulertuz.

ETXALDE PROGRAMA

- Etxaldeko zenbait animalia eta horien mantenua ezagutzeko: etxaldearen egiturak ezagutzen dira; oilategia, usotegia nahiz ukuilua, bertako lanak egiten dira eta behi eta ardiak etxaldeak ere bisitatzen dira. Elikagaien jatorriak aztertu eta konposta egiten ere ikasten dute haurrek.

BARATZA PROGRAMA

- Baratzaren mantenua gerturatzeko: baratza eta negutegia ezagutu eta baratzeko lanak egiten dira; uzta edo biltzea, ereintza, lurra jorratzea... Era berean, elikagai fresko eta osasuntsuak kontsumitzen erakutsi nahi da.



Let's speak English

Ikasturte osoan ingelesa ikasten aritu ostean, Ikastolen Elkartek ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ematen du udalekuak eta atzerriko egonaldiak antolatuz.

Ingeles udaleku itxietan 15 egun pasatzen dituzte gazteek: goizez eskolak jaso eta gainerako denboran aisialiko ekintzak egin. 10-16 urteko gaztetxoei begira antolatzen dira Bermeon, Ondarrun, Zarautzen eta Sopelan. Goizetan ingelesa landu ostean, arratsaldean piragua, arrauna edota bizikleta egiteko beta dute 15 egunetan zehar.

ENJOY ENGLISH deritzoten udaleku irekiak ere egon ohi dira. Horietan begiraleak kanpotarrak izaten dira, ama hizkuntza ingelesa dutenak, eta udalekuetan parte hartzen duten ikasleen familietan egoten dira. Modu honetan, esperientzia familietara ere zabaltzen da.

Helburua, aisialdian oinarrituz ingelesa lantzea da, jolasak, eskulak, ipuin kontaketak, antzerkiak, proiektuak... ingelesez eginez.

Atzerriko egonaldiak dira beste aukera bat. Hau 13-18 urte bitarteko nerabeentzat hizkuntza batean murgiltzeko era aproposa da, jatorrizko hiztunez inguratuta egotea eta beraiekin komunikatu beharra izatea, alegia. Horrela, hizkuntza giro errealean jasotzen da, hiztegia, esamoldeak, intonazioa... bereganatuz.

Egonaldi hauek Irlandan (Maynooth eta Carlowen), AEBn (San Franciscon) eta Ipar Irlandan (Magheran, Magherafelten eta Dungivenen) eskaintzen dira.

Hizkuntza ikasteaz gain, kulturen arteko trukea aberasgarria da, harreman berriak lantzeko eta ikaslearen autonomia garatzeko aukera bideratzen baitu.

Auzolandegiak

Opor garaiak auzolanean pasa nahi dituzten gazteentzat, aukera paregabea eskaintzen dute auzolandegiak: gizarte proiektu batean parte hartu, adiskide berriak egin eta ondo pasa. Errota zahar bat konpondu, natur parkea txukundu, putzu edo zubi zahar bat berritu, erro-matarren aztarnak bilatu, erreka bat garbitu, herriko haurrentzat antzerkia egin... makina bat gauza egiteko aukera izan ohi da egitasmoetan, betiere esperientzi berrietara zabalduz.

Egunean lau orduz lana egiten da, kultura eta arkitektura arloko ondarea berreskuratzeko edota ingurumena babesteko ekimenetan. Trukean, lo egiteko aterpetxea eta otorduak ematen dira. Aisialdian ere ondo gozatzeko parada dago: bisita turistikoak, tailerrak eta jolasak, mendira edota hondartzara txangoak, jaialdiak eta abar. Jarduera oro, era sortzailean eta elkarlanean burutzen da, bizikidetzara balioak oinarri izanik.

Gutxienez 15 egun eta gehienez hilabete bat irauten dute, eta 15-26 urte bitarteko gazteei zuzenduak daude. Hauek, eguneroko antolakuntzan parte-hartze aktiboa daukate. Bertan, beste toki batzuetako gazteekin auzolanean jardunez, kultur truke aberasgarria eta adiskideak egiteko aukera polita suertatzen da, besteen ohi-turak, herriak, parajeak edota lan egiteko moduak ikasiz. Taldean lan egin, taldean goxatu.

Euskal Herrian, aurtun hamalau leku desberdinetan antolatuko dira, Iparraldean bost eta Hegoaldean bederatz, gehienak Araba eta Nafarroan. Euskal Herritik kanpora joan nahi duenak ere, aukera anitza dauka, Europako lurraldeetatik hasi eta Maroko, Japonia, Hegoamerika edota beste edozein leku. Behar dena, motxila prest izatea, lanerako grina eta ondo pasatzeko gogoia.



Aisialdia edo ardiardia?



Atzio OREXA
PEDAGOGO

Aisialdiko hezkuntzako programe-
tan –udalekuetan, kanpaldietan, ludo-
teketan...– aldaketa nabarmena gerta-
tu da azken urteetan, inolako zalantza-
rik gabe. Urte batzuetatik hona, aldatu
egin dira hezkuntza jardueraren eta gi-
zartearen ezaugarriak: familia egiturak
eta lan egoerak, balioak, hirigintza...
Eta aisiaren pedagogia eragile horiek
guztiak kontuan hartu eta bere egune-
roko jarduera horien arabera egokitzen
saiatu da. Dinamizatzaileen formazio
beharrak ere hainbat esparrutik lan-
du dira: ikastaro espezifikoak, uniber-
tsitate tituluak... Aipatzekoa da, hala-
ber, Euskal Herriko herri eta auzoetan
finkatutako aisialdiko ekipamendu sa-
rea. Eta ezin uka daiteke aisialdiko hez-
kuntzako langileen lan egoerak hobera
egin duela, nahiz eta oraindik bide lu-
zea dagoen egiteko, adibidez soldatak
hobetzeari dagokionez eta lanaldi nor-
malizatuagoak finkatzeari dagokionez
(zenbat ordu lan egiten du aisialdiko
begirale batek udalekuetan? Ez konta-
tzea hobe).

Baina azpimarratu nahi nuke aisial-
diko programen ibilbidean eta garape-
nean, **sarritan ahaztu egin ohi dela ai-
sialdiko hezkuntzaren funts nagusia**.
Alegia, ez dela kontuan hartzen aisial-
diko hezkuntza bitartekoa dela; partai-
deek jarrera kontsumistak, alienatzaile-
ak, lehiakorak, elkartasunik gabe-
koak, ez-sortzaileak alde batera utzi eta
beren aisia beste era batera eraikitzen
eta erabiltzen ikasteko bitarteko bat
besterik ez dela, alegia. Eta **xede hori
lortzeko bide bakarra bizipena, espe-
rimentazioa dela; partaideak berak
izatea ekintzen protagonista**. Hori
esanik, gauzak egiteko, planifikatzeko,
harremanak izateko beste modu bat-
zuk kontuan har ditzagun proposatu
nahi nuke; azken batean, **aisialdiko
hezkuntza aisialdirako hezkuntza
bihurtzea**.

Era berean, gaur egun nagusi diren
joerak aldatzeko lagungarri gerta dai-
tezkeen ideia batzuk ere azaldu nahi ni-
tuzke:

- **Plangintza ez-zuzentzaileak**:
plangintzek ez lukete izan behar or-
duen egitarau estu eta ekintzen hurren-

kerak hutsak. Hezitzaileak haurren zer-
bitzurako baliabide bat izan beharko
luke; haurrek eskatzen diotenean hau-
rrei lagundu behar die, baina haien eki-
mena eta bat-bateko jarduera errespe-
tatuta, betiere. Benetan planifikatu be-
har dena zera da: zer egingo dudan nik,
hezitzaile gisa, erritmoak ez bizkortze-
ko-eta (hezitzailea protagonista nagu-
sia izan gabe).

- **Ekintzak** ez dira hartu behar hel-
buru gisa, bere horretan, bitarteko gisa
baizik: askoz ere egokiagoa litzateke
partaideen interesetatik abiatzea, eta ez
guk bilera luze eta ezordukoetan egiten
ditugun planifikazioetatik.

- Partaideei ekintzak **antolatzen
eta prestatzen laguntzea** dena eginda
ematea baino interesgarriagoa da.
Nahiz eta horrela ekintza gutxiago
egin. Bizitzako beste hainbat esparru-
tan dena eginda aurkitzen dute, eta zer-
tarako balio du?

- Partaideek dituzten **beharrak eta
gabeziak orekatu** behar dira: lasterka
egin, jauzi egin, erlaxazioa, oihu egin...
eskolan, etxean, eta kalean ere nekez
egin ditzaketan gauzak egin.





- Ezin dugu haurrekin jokatu haien gurasoekin jokatzera ausartuko ez ginatekeen moduan: hobe da arrazoiak eman, gauzak inposatu ordez; hitz egiteko hurbildu, urrunetik oihukatu ordez; begirunez jardun; era aktiboan entzun...

- Haurrak **errespetatu**: beraiek eta gainerakoak errespetatuz haziko dira.

- Utz iezaiezu beldurra edukitzen, haserretzen. Malkoak eta kasketaldiak osasungarriak dira.

- Utzi haurrei ahal diren **erabaki gehienak hartzen**. Konfiantzarekin haziko dira eta erabakiak hartzeko gai izango dira.

- **Zentzuko mugak** jarri.

- Haurrengandik duten **onena jaso**ko duzula **pentseta**. Ahal duten guztia egingo dute arrazoi zenuela ikusarazteko.

Jabetzen naiz guretzat askoz ere erosoagoa dela gaur egungo inertzia irarritzea; jabetzen naiz, halaber, zaila dela gauzak aldatzen saiatzea, guk -gaur egun hezitzaile garenok- jaso dugun heziketaren bide berari jarraitu ordez beste bide batzuetatik abiatuta. Baina ziur nago ahaleginak merezi duela, eta, gainera, aisialdian goian azaldutako gakoei jarraituz egindako lana ezin hobeto egokitzen zaiola gaur egungo haurrek eta gazteek bihar benetan behar dutenari. Saiatuko gara?

Aisialdirako heziketaren ajeak



Asier HUEGUN

HEZKUNTZA ZIENTZIETAN DOKTOREA

Aisialdirako heziketan dihardugunontzat autokritikarako garaia iritsi dela uste dut. Gaur egungo eskaintzari begirada bat emanez gero, gustuko ez dudan ikuspegia topatzen dut begien aurrean, salbuespenak salbuespen.

Hainbat arrazoi direla-eta, aisialdirako heziketaren filosofiaren oinarriak alboratu ditugu. Heziketarako aisialdiak dituen ahalmenak gutxietsi ditugu, eta "ondo pasatzea" eta "entretentzea" ideiekin lotzen dugu gaur egun. Soilik ideia horiekin. Eskolan egiten ez den "zerbait" egitera jo da. Ondorioz, ekintza programatuek hartu dute zama guztia, ustez ekintza "ezberdin" horiek egiteagatik, hots, hezkuntza arautuan egiten ez diren jarduerak egiteagatik, aisialdian

bagaudela sinetsiz. Usteak osoa ustel, kasu honetan.

Gaur egun, aisialdirako heziketaren nondik norako praktikoa zein teorikoa ahuldu eta urardotu egin dugu. Aisialdirako heziketan parte hartzen dutenentzat elkarbizitzarako **eremu esanguratsua eta zentzuz beterikoa** sortu beharrean, non kideek **esperientzia markatuak** bizitzeko aukera duten, goitik beherako antolaketa espazio zurrinak sortu ditugu, non beti zerbait egin behar den, zertarako den zehatz-mehatz ez jakin arren. Badirudi, egin ohi ditugun jardueratan, tailerretan, jolasetan eta abarretan adituak sortu nahi ditugula. Denbora betetzeko premia larrian aurkitzen gara sarritan hezitzaileok. Jakina, jarduera, tailer eta jolasak garrantzitsuak dira, baina **irizpidea, zentzua eta norabidea** duen ikas-prozesuaren baitan. Hau da, geure egitasmoen norabide pedagogikoa galduta ikusten dut maiz. Izan ere, aisialdirako heziketak norbanakoarentzat den bezalaxe, alderdi soziala ere badu. Gertuko komunitatean (auzoan nahiz herrian) eragiten du, eta horretarako, partaideok -hezitzaileek nahiz hezigaiek- norabide pedagogikoa zehaztean, honako hau hartu beharko genuke aintzat: "**Egiten dugunak guretzat zentzua du!**"

Aisialdirako heziketaren zentzu pedagogikoa berreskuratzen badugu, bertan garatzen dugun egitasmoa zinez izango da esanguratsua partaideentzat, eta, jakina, berau garatzeko ezinbestekoak izango dira harremanak, norbanakoaren eguneroko bizitzan garrantzitsuak diren alderdiez hitz egitea, elkarrekin lana egiteko astia izatea, ustekabeak intentsitatez bizitzeko aukeraz baliatzea, taldeki-deak esperientzia berriak bizitzeko aukera izatea, eguneroko bizitzaren "errutinaz" gozatzeko parada edukitzea, jarduera berriekin esperimentatzeko aukera profitatzea... eta beste hainbat alderdi.

Ajeak eta biharamuna ez dira betiko. Berreskura ditzagun aisialdirako heziketak eskaintzen dizkigun aukerak.

juan carlos alonso

ELKARRIZKETA

Psikologoa

“ Beldurra eta frustrazioa errealitateak sortzen du, eta ez fantasiak, fikzioak edo ipuinek. Are gehiago, fantasiaren, fikzioaren, ipuinen beharra dugu errealitateari aurre egiteko. ”



juan carlos alonso

E

// Gaurko ipuinek gehiegi babesten dute haurra. Eta haurrek “ogro gaiztoak” ere behar dituzte, beren inpultsoak botatzeko.

// Beldurrezko ipuinak ez kontatzea, beldurrari beldurra izatea da. Eta hori da eduki daitekeen beldurrik handiena.

Walt Disneyk kolore arrosaz margotu du haurtzaroa, baina gaurko haurrek ere otsoaren beharra badutela esatera datorkigun psikologoa da Juan Carlos. Donostiako Kabinete Psikologiko batean eta DBHko institutu batean egiten du lan. Guraso eta irakasle prestakuntzan aritzen da, eta irakurzaletasunaz hainbat hitzaldi eta ikastaro eskaini izan ditu.



“Kontatu ipuin bat” eskatzen duenean haurrak, zer dago horren atzean? Zergatik erakartzen du ipuinak?

Haurrak fikzioaren bidez hobeto ulertzen duelako errealitatea (bereziki, sentimenduak). Ipuinak bere maila psikoafektibo berean hitz egiten baitio: fantasiaren eta irudimenaren mailan. Fantasia hurbilago dago haurraren egozentrismotik, bere sentimendu eta nahietatik, errealitatea ulertzeko eta sentitzeko bere moduetatik.

Adibidez, guk 4 urteko haurrari esaten badiogu “ez duzu munstroen beldur izan behar, ez dira-eta existitzen”, azalpena entzungo du, baina ez ditu ulertuko gure “zergatiak”, berak beldurra sentitu egiten baitu. Helduok haurraren buruari hitz egiten diogu, arrazonamendua erabiliz. Ipuinak, aldiz, haurraren bihotzari hitz egiten dio.

Haurrak fikziora behar du bere barneko korapiloak askatzeko. Eta zergatik jo behar du fikziora?

Errealitatean horretaz ez delako hitz egiten: familian, eskolan, gizartean ez da hitz egiten heriotzaz, edo bakar-dadeaz, adibidez. Baina haurrak egoera horiek sentitzen ditu, eta errealitateak ez dionez uzten horiei buruz mintzatzeko, fikziozko pertsonaiak behar ditu, horiengan kanporatzeko. Ipuinek adierazi ezin dena adierazteko ahalmena daukate, sinbolikoki. Baina gakoa identifikazioa da. Ipuin batek bere lana egingo du, baldin eta identifikatzeko aukera ematen badio haurrari.

Ipuina beldur kentzaile izan daiteke. Nola lortzen du hori ipuinak?

Esan bezala, haurrari arrazoiak ez

dio balio bere beldurrak ulertzeko. Baina beldur bakoitzak badu bere antidotoa: hitzez jartzea beldurtzen nauen hori (terapietan ere egiten da hori). Beldurra zeri diodan esaten dudanean, bideratu dezaket. Baina ez badut nire beldurrez hitz egiten, beldurrek hor jarraituko dute. Haurrek ere, sentitzen dutena inori kontatzeko beharra badute, baina oraindik ez daukate horretarako ahalmenik, eta bitartekari bat behar dute: zirrara eragiten dien ipuina. Ipuina entzuterakoan, haurrak bere beldurrak ulertzen ditu, errekonozitzen ditu. Sentitzen du ez dela bera beldurrak dituen haur bakarra, eta beldur horiek sentitzea normala dela.

Haurrak, proiektzioaren bidez, pertsonaiengan eta egoerengan kanporatzen ditu bere beldurrak, beraz.

Bai, larritasuna sorrarazten dion hori sorginarengan proiektatuko du, edo otsoarengan, amaordearengan eta munstroarengan, besteak beste. Haurrak bere zirrarak ateratzen ditu, "katarsi" bat gertatzen da. Eta heroiarekiko identifikazioaren bidez, fikzioaren aurrean garaile ateratzen denean, haurrak beldur hori menperatu egiten du, barre egiten dio, gorrotatu egiten du, zigortu egiten du, berarengandik askatzen da. Pertsonaia horrek, beraz, haurrari aukera ematen dio larritzen, zapaltzen duen horri gaina hartzeko, irrealitatean dena posible baita. Ipuineko heroia bezalaxe, haurra ere handiago bihurtzen da eta beldurra txikiago. Helduetan ere gertatzen da hori: beldurraren objektua ekiditen badut, beldurra handitu egiten da, eta ni txikitu. Aldiz, beldurraren objektuari aurre egiten badiot (terapia guztietan egiten dena horixe da, aurre egin), orduan txikiagotuko da beldurra eta ni hazi.

Beldurrezko ipuinak farmazian agindu beharko lirateke kasik! Zer alde osasuntsu dakarte?

Ipuinak balio du haurrari bere beldurrak ulertzen laguntzeko, erlatibizatzeke, beldurra normalizatzeke, eta

beldur batzuk fantasiak eragindakoak direla ikasteko, ez direla errealak. Terapeutikoki asko erabiltzen da haur ospitaleetan eta psikologoetan, sakoneko gatazkak, beldurrak, antsietateak azaleratzen dituelako. Ipuina sendagai izan daiteke. Baina ez diezaiogun gehiegi eskatu: ipuina ez da denerako antidotoa. Ipuinak kontatuagatik, haurrei beldurraren objektuari aurre egiten ere erakutsi beharko zaie, 4 urtetik aurrera, gutxi gorabehera.

Frogatu denez, ipuinek oso ondorio positiboak dituzte, baina batez ere, intrigak ematen duen plazeragatik soilik, merezi du beldurrezko ipuinak haurrei kontatzea. Ipuin arrosotan, aldiz, intrigarik ez dago, dena delako "polita eta plano".

Heldu batzuek ez dute beldurrezko ipuinik kontatu nahi izaten, haurraren angustiak, beldurrak sortzeko arriskua dagoela uste dutelako. Hala al da? Ipuinek beldurrak eta angustiak sor al ditzakete?

Hori helduon beldurra da (horregatik babesten dugu hainbeste haurra). Beldurrezko ipuinak ez kontatzea, beldurrari beldurra izatea da. Eta hori da eduki daitekeen beldurrik handiena. Beldurra ezkutatu ez da desagertzen, alderantziz, indarra hartzen du, eta gainera, sentimendu horren normaltasuna eta baliagarritasuna ukatzen da. Haurrak behar du bere beldurraz hitz egitea.

Hasteko, ia ipuin guztietan beldurra presente dago. Nahiz helduak pentsatu "hau ipuin xamur eta zoragarria da", sakon-sakonean beldurra egon daiteke.

Eta bigarrenik, ipuinek ez dute beldur berririk sortzen: haurraren lehendik zeuden beldurrak tratatzen edo bideratzen dituzte. Otsoa ez da beldurraren sortzailea, otsoa beldurraren adierazpena da. Haurrak barnean dituen beldurrak otsoaren bidez, adibidez, kanporatzen ditu. Eta halako beldurrik ez zeukan haur bati otsoaren ipuina kontatzen badiot, ez du beldur berririk sortuko. Hori frogatuta dago.



Erka ditzagun egungo ipuinak eta ipuin klasikoak. Hasteko, egungo ipuinek beldurra lantzen dute, eta ipuin klasikoek angustia. Zer alde dago beldurraren eta angustiaren artean?

Beldurra zera da: objektu zehatz baten aurrean (izan gauza, pertsona edo egoera) sortzen den arrisku sentimendua. Egungo ipuinak objektu zehatz horietan zentratzen dira, trataera emateko. Beldurrak normalak dira, eta eduki behar dira gainera, egokitze funtzio bat daukatelako. Ez dezagun helburutzat jarri haurrek beldurrik ez izatea, hori baino ezer arriskutsuagorik ez baita.

Angustia bestelako kontzeptu bat da: zehaztu gabeko edo ongi irudikatu gabeko objektu baten aurrean, seinale moduan sortzen den zirrara, erne egoetaren sentimendua, zerbait gerta daitekeen sentipena. Alegia, "beldurra daukat, baina ez dakit esaten zeri". Beldur zehatzek psikologikoki tratamendu "erraza" dute, baina angustia orokorragoa da. Eta angustia ipuin klasikoek lantzen dute.

**juan carlos
alonso**



4 urtetik aurrera, gutxi gorabehera, anai-arreba jaiotzeari zaio beldurra, barregarri gelditzeari, sendagileari, munstroei, umezurtz gelditzeari, heriotzari...

5 urtetik aurrera, berriz, beldur gehien zaio taldeak baztertzeari, "desberdinei", "berdina" ez izateari eta eskolara joateari (segun eta zer egoera topatzen duen han), besteak beste. Egungo idazleek badakite hori, eta era zuzenean edo inplizituki hauraren antsietate edo gatazka iturri horiek lantzen dituzte, ipuina beldur horiei erantzuteko errezeta moduan erabiliz.

Egungo ipuinek beldurra lantzerakoan, zeri ematen diote garrantzia?

Umoreari, samurtasunari, irudimenerari, fantasiari eta introspekzio psikologikoari. Gaurko idazleek oso ondo ezagutzen dute hauraren garapena, haren psikologia ebolutiboa, haren beldurrak, erreakzioak. Hor kokatzen dira, eta egunerokotasunean haurrek bizitzen dituzten gai zehatzek sortutako beldurrak lantzen dituzte. Ez dute istorio fantastikorik agertzen, ez baita heroia izan behar norberaren "heren-sugea" gainditzeko (beldur horiek normalizatu egin dira).

Orokorrean, ez dira hain ipuin hunkigarriak, zirrara eragiten dutenak, ez dute haurra tentsioan jartzen. Ulermena, tolerantzia eta komunikazioa bezalako balioak nagusitzen dira. Beldurrari sentsibilitatez egiten diote aurre, haurra ia konturatu gabe (beldurra desmitifikatzen da, beraz).

Gaurko idazleek hauraren garapena oso ondo ezagutzen dutela diozu. Motzean esanda, zer beldur ebolutibo izaten dira umetan?

Hasteko, kontuz. Saillapen hau orientabide modura hartu behar da, malgutasunez. Ez du esan nahi haur guztietan halaxe denik zehazki.

2 urtetik aurrera beldurra eduki ohi zaio bereizketari (separazioari), abandonatzeari, ezezagunei, olatuei, animaliei, bakarrik gelditzeari, indartsuari, zarata handiei, naturako fenomeno batzuei...

Beste beldur batzuk "ikasitakoak" edo eragindakoa dira. Noiz sortzen dira beldur berri horiek?

Bizipen negatiboak izatean, helduengandik (gurasoengandik) kutsatutako beldurrak direnean, hezteko moduaren ondorioz sortuak direnean (haurra gehiegi babesteagatik, kasu), bere garapen psikoafektiboan zailtasunak dituenean (segurtasun eza, familia edo eskola desoreka). Baina, batez ere, gaurko haurrek zer beldur dituzten eta nondik sortuak diren ikusiz gero, irudiaren eragina itzela dela konturatuko



// Gaurko haurrek zer beldur dituzten eta nondik sortuak diren ikusiz gero, irudiaren eragina itzela dela konturatuko gara. Etxean bertan daukagu arriskua: telebista beldur sortzaile izugarria da, eta helduak ez dira tresna horrekin larritzen.

//

gara. Etxean bertan daukagu arriskua: telebista beldur sortzaile izugarria da, eta helduak ez dira tresna horrekin larritzen.

Haurrak, telebistaren aurrean (edo internet, bideo-joko, edo edozein pantailaren aurrean) bakarrik utziz gero, irudi zirrargarri pilo ikusiko du, eta ez ditu ulertuko, ezin ditu prozesatu, baina zuzenean artxibatzen dira bere memorian, azalpenik gabe. Irudiak bai sortzen dituela beldur berriak, eta ez ipuinak.

Egungo ipuinetara itzuliz, beldurrezko zer egoera planteatzen dituzte?

Eszenatokia leku ezagunek osatzen dute, haurrentzat kuttunak direnek (logela, sukalde). Eguneroko errealitatea deskribatzen dute.

Denbora orainaldian kokatzen da. Kontalaria lehen pertsona izan ohi da. Ipuinak ez dira hasten "bazen behin otso bat..." esanez: "ni" da abiapuntua, eta "orain". Istorioa haurrarendik oso hurbil dago, eta gehiago identifikatzen da.

Narratzailea istorioaren eta haurren artean kokatzen da, egoeragogoredo larri xamarren aurrean umea babesteko eta azalpenak emateko. Nik uste gehiegi babesten dutela haurra gaurko beldurrezko ipuinek: dena gertatzen da ia konturatu gabe, azalpenak emanez...

Eta zer ezaugarri dituzte gaurko pertsonaiek?

Gaurko pertsonaiek ez dira manikeoak (ez dira zuriak edo beltzak, zintzoak edo gaiztoak). Gizakiaren ezaugarriak dituzte, protagonistek ere beren akatsak, ahuleziak dituzte. Protagonista haurra denean, entzulearen adin bereko izan ohi da (ipuin klasikoetan helduagoak izaten dira). Batzuetan protagonista heldu bat ere izaten dute ondoan, badaezpada, laguntzeko, babesteko, azalpenak emateko.

Etsaiak psikologikoak dira, ez dira zehatzak. Pertsonaia gaiztoak ia ez dira agertu ere egiten. Sorginak edo "gaizta-



keria" desagertu egin dira. Munstroak bai, azaltzen dira ugari, baina itxurarik gabe (haurrak ez du identifikatzen pertsonaia gaizto zehatz gisa). Gaurko munstroak sinboloak dira: egungo gatazkak irudikatzen dituzte, eta amets gaiztoetatik hurbil daude.

Ipuin klasikoek, aldiz, nola lantzen dute beldurra?

La bruja debe morir saiakera liburua irakurtzeko gomendatuko nuke (Sheldon-ena da). Ipuin klasikoaren atzean zer dagoen sakontzen du, erraz ulertzeko moduan. Izenburua bera oso grafikoa da, dena esaten du.

Ipuin klasikoak psikodramak dira, errepresentazio metaforikoak. Ipuinean kontatzen dena haurraren barruko sentimenduaren isla da, haren beldurren edo antsietateen errepresentazio bat (eta frogatu denez, ipuin klasikoetako gaiak, beldurrak, unibertsalak dira). Barne egoeraren errepresentazio bat denez, haurra libre da nahi duenarekin identifikatzeko. Horregatik, ipuin klasikoaren esanahi metaforikoa ez zaio azaldu behar haurrari. Haurrari

ez esan inoiz horrelakorik: "harrapatu duzu zertaz doan 'Errauskine'? Ipuin hau kontatu dizut, ahizparekin jelskor zaudelako". Ez egin halakorik. Ipuin klasikoak, kontatu eta haur bakoitzak nahi duena ulertzeko dira, bere behararen arabera. Landareak bezala, haurrak ere behar duen "ura eta eguzkia" hartzen ditu, ez gehiago.

Gaurko ipuinek haurra gehiegi babesten dutela diozu. Ipuin klasikoak, berriz, ez dira txantxetan aritzen.

Hala da, ipuin klasikoetan beldurra pertsonaia gaiztoarengan irudikatzen da, eta pertsonaia hori deuseztatu, hil egin behar da (beldurra eragiten duen objektuaren gaineko garaipenaren seinale baita). Hor azpian dagoena, inpulso bat da: ongia eta gaizkia, ona eta txarra.

Ipuin klasikoaren jatorria ahozkoatsuna da; horregatik, sorreran eta gerora ere ez ziren marraztu. Ipuinok imajinatzekeo asmatuta daude, eta fantasia denez, haurra libre da entzuten duena berak nahi bezala irudikatzekeo (perts-

**// Ipuin
klasikoen jatorria
ahozkotasuna da;
imajinatzeko
asmatuta daude, eta
fantasia denez,
haurra libre da
entzuten duena
berak nahi bezala
irudikatzeko, bere
mementoko
beharren arabera.
Ipuin klasikoak
kontatzeko dira, ez
ikusteko. Irudia jarri
zitzaienetik, zuten
xarma eta benetako
izaera galdu
zuten.**



naia gaiztoak, adibidez), bere mementoko beharren arabera. Horregatik, ipuin klasikoek antsietatea lantzen dute, beldurra baino zabalagoa dena (ez dakit zeri diodan beldurra, eta hori sinbolizatu egingo dut). Ipuin klasikoak kontatzeko dira, ez ikusteko. Irudia jarri zitzaienetik, zuten xarma eta benetako izaera galdu zuten.

Ipuin klasikoetan eskema bat errepikatzen da beti, fase batzuk daude.

Lehendabizi pertsonaia sartu egiten da bide batean: norberaren barrura bidaia bat egitea da. Beldurra gainditzeko azertu, arriskatu, barruratu egin behar baita. Horregatik, norantz abiatzen da pertsonaia? Baso ilunera, gaztelu ezezagun batera, ispilu atzera... "Hor badago zerbait", eta sartu egiten naiz.

Bigarren fasea topatzea da. Eta ipuin klasikoa ez da txantxetan aritzen: zer edo zer hori bat-batean agertzen da, eta zeharo gaiztoa aurkezten zaigu. Haurra behartuta dago beldurrari aurre egitera, ezin dio ihes egin, eta beraz, norberaren aitortzea dago: pertsonaia gaizto horrekin topatzean, haurrak ezagutu egiten ditu bere beldur propioak.

Beldurra menperatzeko, ni garaile irteteko, "Sorgina hil behar da" (Sheldonen liburuak dion bezala). Ipuinaren muin emozionala garaitze une hori da. Osoa hiltzeaz bat, sorgina erretzeaz bat, sinbolikoki haurraren zati negatiboak deuseztatzen dira, pertsonaia gaiztoarengan proiektatzen baititu haurrak bere zati negatiboak.

Istorioren azkenean ospakizuna dator: beldurra menperatua izan da, haurra seguruago sentitzen da, eta ospatu egin behar da.

Eszenategiak ere erabat desberdinak dira ipuin klasikoetan.

Eszenategiak gutxi zehazten dira. Sinboloak deskribatzen dira: basoak, gazteluak, iluntasuna... Denbora urrutiko iragan batean kokatzen da, leku urrun batean, "auskalo non", eta konta-

laría hirugarren pertsonan zuzentzen zaio haurrari. Haurra eta egoeraren artean distantzia objektibo bat sortzen da horrela. Pertsonaien izaera oso zehaztuta dago, manikeoak dira (edo oso onak, edo oso txarrak). Horrek identifikazioa errazten dio haurrari.

Ipuin klasikoetan beldurrezko pertsonaia fantastikoak dira nagusi. Bakoitza zeren metafora da?

Osoa da beldurrezko pertsonaie-tan errege, eta gaizkiaren metafora da: irrazionaltasun ezkutua, bulkada edo inpulso erreprimituak, zehaztu gabeko arriskuak, irensten gaituena sinbolizatzen du.

Beste pertsonaia nagusia sorginak dira, eta zera sinbolizatzen dute: heldze-ko eta hobetzeko gaitzitu behar dena, nahi ez ditugun ezaugarriak, engai- nuak.

Gaur oso pertsonaia gaizto gutxi gelditzen zaizkie haurrei. Horrek zer eragin du?

Walt Disneyk ogroak ere on puska hutsak marrazten ditu. Lehen ogroak gaiztoak ziren, umeak jaten zituzten, eta sinbolikoki horrek funtzio bat zuen. Gaur otsorik ez badago, sorginik ez badago, eta ogroak maitagarriak badira, haurrek ezin dute esan "hil dezala!", "jan dezala!". Eta haurrek behar dute hori, beren inpulsoak botatzeko. Haurrak ere gizaki baitira, ez aingerutxo zuri "inozenteak".

Kaleko txotxongiloetan, ikusi haurrek zer oihukatzen duten heroiak hankapean duen gaiztoari zer egin galde- tuz gero: "hill, hill!" hasten dira garrasika umeak; ez dute esaten "askatu osoa, ez egin ezer gaixoari". Eta hori ez da kru- delkeria, badakite-eta sinbolikoa dela, errealitatea beste gauza bat dela. Egurra nahi dute, pertsonaia gaiztoak desagertze-ko daudelako.

Askorentzat ipuin "heavy" horiek, bultzatu nahi ditugun balioen aurka doaz (aniztasuna, bakea eta gisako balioen aurkako mezua dute).

Bi gauza zeharo diferente dira errealitatea eta heziketa erreala, eta fantasia mundua. Haurrei beren beldur eta angustientzat ihesbide bat erraztu behar zaie, eta jatorrizko bertsoak hori ematen du. Bestela, zer pertsonaia geratzen zaio bere alde negatiboena ukitzeko? Pertsonaia horiei "edukiontzi psikologikoak" esaten zaie (zuk horietan jartzen dituzulako zure beldurrak, inbidia, sentimendu negatiboak). Angustiarentzat txerto bat da. Eta frogatu izan da lehen, haur ginela pertsonaia horiek entzuten genituenean, gudan inongo frustraziorik ez zutela sortzen. Beldurra eta frustrazioa errealitateak sortzen ditu, eta ez fantasiak, fikzioak edo ipuinek. Are gehiago, fantasiaren, fikzioaren, ipuinen beharra dugu errealitateari aurre egiteko, baita helduok ere (ametsen funtzioa horixe da).

Egungo literaturak dena arrosa izan dadin nahi du, eta haurren sentimendu sakonak ezkututzen ditu: gizakiaren ahultasunak, funtsean. Bizitza errealetik etengabe babesten baditugu, gero nola egingo diete zailtasunei aurre? Ez dut esan nahi literatura guztiak gogorra izan behar duenik: peluxe-zko hartzen literatura ponpoxoa behar da, baina baita literatura "kañeroa" ere.

Ipuin klasikoetan jatorrizko bertsoak eta egokituak daude. Zer kontatu haurrari, bertso egokituak ala klasikoak?

Gaurko haurrek bertso egokituak soilik dakizkitez, eta iturri bakarretik ezagutzen dituzte gainera: Walt Disney-n ikusita, bereziki, "deskafeinatu" hutsak, "light-light". Oso politak, oso goxoak, eta beti irudiz kontatuak. Gu-txi dira ipuin klasikoak gurasoek edo aiton-amonek kontatuta ikasi dituztenak (eta "kontatu" diot).

Ipuinak egokitzen joan dira haurren sentsibilitateari ez eragiteko. Eta hori egiten lehenak Grimm anaiak izan ziren, duela 200 urte jada: Txanogorri-txoren jatorrizko bertsoan, Perraulten bertsoan, otsoak amona eta Txanogorritxo jaten zituen, eta hori bukatzen zen ipuina. Grimm anaiak beldur ziren, ho-

rretan utziz gero ez zutela alerik salduko. Orduan asmatu zuten ehiztariaren 9 figura.

Bada, niretzat, jatorrizko bertso "heavy" hori kontatzea ez da krudelkeria. Zeren begira 4 urteko neska batek zer botazio aitari Txanogorri-txoren jatorrizko bertsoa entzunda: "otsoa ez da hain gaiztoa ere, zeren ipuinetan amonak jan behar dituzte, horretarako dau-de. Baina amonaren merienda errespetatu egin du behintzat!" (Alegia, otsoak ere bere irizpideak bazituela). Haurrek badakite sinbolikoa dela. "Kontuz, haurren sentsibilitatea ukitu gabe..." eta halakoak, helduon beldurrak dira.

Komeni da, beraz, jadanik ezagutzen dituzten ipuin horien bertso originala kontatzea?

Bai. Hori bai, jatorrizko bertsoa kontatzerakoan ez esan haurrari "orain arte kontatu dizudana engainu bat zen, eta guraso izanagatik gezurra esan dizut". Beste ipuin bat balitz bezala aurkeztu: "orain beste amaiera batekin kontatuko dizut".

Ipuinak kontatzeko, aholku txiki batzuk ematen hasita...

Haurren egoera psikoafektiboa kontuan hartu. Ikusi nolakoa den haurra eta bizi duen testuingurua, muga batzuk jarri, eta berak asimilatze moduan eman, gradualki. Eta garrantzitsuenak: heldu baten laguntza behar du. Beldurrezko ipuina kontatu bitartean, gure besoaz inguratuta egoteko beharra du, horrekin ematen diogun mezua baita "ni ondoan nago", "ez zaitut bakarrik utziko arrisku egoeren aurrean", "ez duzu beti ausartena izan behar". Eta esaten dioguna da, beldurra sentitzea normala dela. Beraz, amodioarekin, afektibitatearekin, kontatu ipuina. Zer gozamen den nire aita-txok edo amatxok, babestuz, ipuin bat kontatzen didanean, eta haren kontra-kontra jartzen naizenean, "ai zer beldurra!", kukututa. Bihotzez kontatzen badiogu, haurrek gozatu egingo du beldur pittin bat sentituz, otsoa, sorgina, mamua, munstroa edo beste edozein piztia "gaiztakeriak" egiten ari den bitartean.



Gatazkak konpontzen ikasi dute Zamakola ikastetxean

Eta gainera, gatazkak hezibide bihurtu dituzte

Bilboko La Peña auzoan dago Zamakola ikastetxea. Eskola gisa baditu hainbat berezitasun. Azken urteotan “Bizi gaitezen elkarrekin” proiektu zabal bezain interesgarria darabilte eskuetan. Ahaleginaren ondorioz, eskuetatik gorputz osora barreiatzen ari da; ikasleen, gurasoen eta irakasleen gorputzetara.

Gizabanakoak, ingurunea eta elkarbizitza ditu oinarri proiektuak, eta horren barruan azpimarratzekoak dira gatazkak bideratzeko sortu dituzten adostokiak eta bitartekariak. Merez du ezagutzea zer egin duten.

50eko eta 60ko hamarkadetan etorritako etorkinen auzo honetako eskola publikoan, 2 urtetik 12ra bitarteko 600 haur inguru biltzen dira. Ikastetxea beti sentitu izan da auzoaren hobekuntzan eragin zezakeen eragile aktibo. Eta hori hala izan da, hein handi batean, irakasle taldea proiektu komun baten inguruan bildu delako: bertan parte hartu dutenez, eskola bere egin dute, taldean lan egin dute, esperientzia positiboak eta negatiboak partekatu dituzte eta erabateko inplikazioarekin hartu dituzte erabakiak. Lan taldearen



egonkortasuna funtsezkoa da urteetan zehar iraun dezan. Era berean, prozesua koherentea eta onartua baldin bada, langileek zentroan gelditzeko hautua egiten dute, eta ordezkoez ere itzultzeko ahalegina egiten dute. Baldintza horiei esker, lan taldeari nortasuna eta indarra ematen dion irakaskuntza kultura sortzen ari dira.

“Bizi gaitezen elkarrekin” proiektua

Duela 6 urte abiatu ziren, eta urtez urte adar guztiak landuz doaz. Non dago horren guztiaren iturburua? Kepa Mallea irakasleak dioenez, “irakasleen hausnarketa batetik abiatu ginen. Ikaskuntza eta eskolako martxa oztopatzen

zuten hainbat zailtasun zeudela konturatu ginen. Hori aldatzeko gogoia genuen; gure ikasleek elkarrekin bizitzen ikastea nahi genuen”. Irakasleentzat elkarbizitza ona ez da curriculumeko edukiak irakasteko behar den baldintza bat soilik, baizik eta berez oinarritza den ikasketa. Eskola da testuinguru egokiena elkarbizitza zer den ikasteko, bertan adin, jatorri eta hizkuntza askotariko haurrak elkartzen direlako. Haler, familiak, auzoak eta komunikabideek ere badute zer eginga, eta horiez da ahaztu behar.

“Bagenekien ez zela gauetik goizera lortzen aldaketa. Sozialki eta aktiboki eraiki behar da elkarbizitza ona. Ho-

“Bizi gaitezen elkarrekin” proiektua

Gure ingurua zaintzen dugu

- Inguru fisiko atsegina
- Auzoari irekitako eta auzoan integratutako eskola

Pertsonak zaintzen ditugu

- Inguru segurua
- Berdinen arteko harremana
- Trebezia sozialak eta garapen pertsonala

Elkarbizitza zaintzen dugu

- Kulturantzatasuna eta desberdintasuna balio gisa
- Arauen adostasuna
- Bitartekaritza
- Jolaslekua, heziketarako eremu

Irakasleok erabiltzen dugun botere absolutua denona da eta, partekatzen ikasten dugunean, orduan abiatzen gara bide onetik.

9.- Ikasleak bitartekaritzan hezi, gatazkak modu konstruktiboan konpon ditzaten.

Gatazkak konpontzeko moduak

Elkarrekin bizitzeak berekin dakar gatazkak sortzea. Ez dugu sexu berdina, ez dugu zaletasun berdinek, ez dugu maitasun berdinek, gauza baten inguruan ikuspegi desberdina eduki dezakegu, interesak ere desberdinak izan



regatik, gure proiektuan eguneroko jardunarekin lotutako hainbat alderdi lantzen ditugu”, azaldu du Kepak. “Poliki-poliki eskolako funtzionamendua aldatzen goaz, curriculumeko zenbait edukiri garrantzi handiagoa ematen, eta taldekako tutoretzei ere bai”.

Goiko taulan ikusten den moduan, “Bizi gaitezen elkarrekin” proiektu zabalak hiru ardatz nagusi ditu: gizabana-koak, ingurua eta elkarbizitza. Horieta-ko bakoitzetik hainbat arlo edo zeregin ateratzen dira; guztira bederatzi izendatu dituzte:

1.- Eskola komunitateko partaide guztiak ingurunearen zainketan inplikatu.

2.- Auzoko taldeekin kolaboratu es-

kola komunitatearen eta ingurunearen garapen kulturala eta hezkuntzakoa bultzatzeko.

3.- Eskola komunitateko kide guztiak aintzat hartuta eta seguru senti daitezten lortu.

4.- Ikaslea bere talde gelan eta eskola komunitatean integratua senti dadila lortu.

5.- Ikasleari bere garapen pertsonalean eta sozialean lagunduko dioten trebeziak eman.

6.- Kulturantzatasuna eta desberdintasuna elkarbizitzarako balio izango diren eskola komunitaterantz joan.

7.- Arauak adostu eta barneratu, betetzea bultzatuz.

8.- Jolastokia heziketa espazio bilakatu.



Kepa MALLEA: **“Gatazkak ezin dira saihestu, baina bai bideratu eta hezibide bihurtu. Horregatik, gure ikasleek elkarrekin bizitzen ikastea nahi genuen”**

daitezke... Baina, halere, elkarrekin bi-
zi behar dugu. Beraz, gauzak adostu
egin beharko ditugu; batzuetan arauak
jarriz, bestetan elkar jasan ez... “Hori
ikasi egiten dela uste dugu, eta ikasi
egin behar dela. Beraz, gukirakatsi egiten
behar dugu”, dio Kepak. “Isildu edo
zaplazteko bat emango dizut izan dai-
teke etxeko soluzioa, eta bihar arazoak
handiagoa izaten jarraituko du. Esko-
lan ere hatza erabiliz joka dezakegu: zu
hona eta zu hara. Baina hori ez dela ona
ikusiko dugu. Botere absolutu hori deno-
na da eta, partekatzen ikasten dugune-
an, orduan abiatzen gara bide onetik.
Gatazkak indarkeriaz bideratzen badi-
ra, indarkeria gehiago sortzen da. Al-
diz, hitz eginez, elkarri entzunez... bi-
deratzen badiara, beste ondorio batzuk
sortzen dira. Gatazkak ezin dira saihes-
tu, baina bai bideratu eta hezibide
bihurtu”.

Hori jakinik, Zamakolako irakasle-
ak prestakuntza jaso zuten Mireia Ura-
ga adituaren eskutik. Teorian ikusita-
koa praktikan jartzea izan zen hurren-
go urratsa. Alde batetik, errespetuzko
jarrerak lantzen hasi ziren tutoretza or-
duetan, jolastokian, kalean... Eta bes-
tetik, adostokiak eta bitartekariak sortu
zituzten.

Zer dira adostokiak?

Izenak dioen moduan, gatazkak
sortzen direnean, hitz egitea eta kon-

pontzea da helburua, eta horretarako
bereziki sortu dituzten lekuak dira
adostokiak. Bi aulki egoten dira, bakoit-
za sinbolo batekin: ahoa eta belarria.
Ahoa duen aulkian esertzen denak
egoerari buruz hitz egiten du bere iritzia
eta ikuspegia emanez, eta besteak en-
tzun egiten dio. Gero lekuz aldatzen di-
ra. Horrela, gatazka konpontzen saia-
tzen dira. Ziklo bakoitzerako adostoki
bat dago, beste bat jolastokitik hurbil
eta beste bat jangela ondoan. “Txikiek
berehala konpontzen dituzte arazoak,
eta musu emanez edo eskua emanez
bukatzten dute. Handixeagoei gehiago
kostatzen zaie. Denetik dago” aitortu
digu Kepak.

Bakarrik ezin denean, bitartekariekin

Batzuetan adostokira jotzen dute-
nak ez dira gai izaten arazoa konpon-
tzeko, eta ikasle bitartekari laguntza
eska dezakete. Ikasleen arteko gataz-
kak bideratzen laguntzen duten ikasle-
ak dira, hamabi guttura: 5. mailako sei
eta 6. mailako beste sei. Ikasturte hasie-
ran zapi berde batekin ateratzen dira jo-
lastokira, denek ezagut ditzaten. Bai
adostokian eta bai eskolako hormetan
haien argazkiak jartzen dituzte.

Beraien lana zera da: bi aldeek lasai
hitz egin dezaten bermatzea, gertatu
dena eta sentitu dutena adieraztea,
txandak ematea; esan dutena berriz la-
burtzen dute egoera argitzen laguntze-
ko, eta azkenean, irtenbide bat bilatzen
laguntzen diete. Dena idatzi egiten du-
te, baita hartzen duten konpromisoa
ere.

Ikasturtearen amaieran bitarteka-
riek euren esperientzia kontatzen diete
gurasoei, eta amaierako jaialdian publi-
koki ezagutzen zaie egindako lana.

Ikasturtea bukatzean 6. mailako bi-
tartekari hutsunea bete behar izaten
da bitartekari berriekin. Horretarako, 6.
mailako bitartekariak 4. mailako gela-
tara joaten dira euren esperientziaren
berri ematera eta hurrengo ikasturtera-
ko boluntarioak animatzera. Nahi dute-
nak borondatez aurkezten dira eta de-
nen artean sei aukeratzen dituzte. Hu-



rengo ikasturte hasieran prestakuntza
berezia jasotzen dute beste sei “zaha-
rrekin” batera eta ikasturtean zehar es-
kolako aholkulariarekin biltzen dira ja-
rraipena egiteko.

Asko lortu da

Ikasle, guraso eta irakasleen artean
inkestak egin dituzte esperientzia hon-
en inguruko iritziak jasotzeko eta de-
nak daude gustura. Besteak beste, ho-
nako ondorio hauek lortu direlako:

- Ikasleek ikasi dute arazoak hitz
eginez eta entzunez konpon daitez-
keela.

- Ikasleen arteko harremanak hobetu
egin dira eta adostokiek eragina izan
dute horretan.

- Irakasleak lehen baino gutxiago
jarduten dira arauak betearazten.

- Haurrak garrantzitsu sentitzen
dira, euren gatazken konponketan par-
te har dezaketela eta hartzen dutela iku-
si dutelako.

- Eskolako giroa lasaiagoa da, eta
arazoa konpondu gabe zuzendaritzara
jo dutenak oso bakanak izan dira. ●


HITZA

**Entzungo dizut, entzun eidazu
adostokian gabiltza**

**bion artean zaila denean
dugu bitartekaritza.**

**Elkar adosten dakigunean
atsegina da bizitza**

**Gure gatazkak bideratzeko
arma onena da HITZA**



Zamakola ikastetxea UNESCO-ren EURED sarean sartuta dago. Bakerako eta Bizikidetzarako Europar Hezkuntza izeneko proiektua darma aurrera. 17 herrialdetako eragileak biltzen dira eta bakoitzak bere arloan egiten duen esperientziaren berri ematen du. Zamakolakoez eskola gisa esku artean duten "Bizi gaitzen elkarrekin" proiektuaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Horrez gain, prestakuntza jasotzen dute, gai honen inguruan gero eta jende gehiago egon dadin prestatuta. Azken xedea bakerako kultura sortzea da, eta horretarako prestatu egin behar da: entzun, irakurri, eztabaidatu... Prestakuntza Alemaniako unibertsitate batek ematen die.



Jolastokiaren eraldaketa

Zamakolan jolastokia heziketarako eremu edo espazio bilakatu da. "Bizi gaitzen elkarrekin" proiektuaren barruan kokatuta, duela sei urte hasitako lanaren ondorioa izan da.

Ordura arte, ez zegoen inolako antolaketa-rik jolastokian: irakasle bakoitzak nahi zuena egiten zuen, bakoitzak bere modura bideratzen zuen, eta ikasleek hori nabaritu egiten zuten. Baloiari "nahikoa da" esateko garaia iritsi zen; mutilak jolastoki erditik kentzeko garaia iritsi zen; irakasleek hitz egiteko garaia iritsi zen. Jolastokiaren zaintza orduak "jasan" beharreko zerbait ziren, eta horri amaiera eman behar zitzaion.

Gainera, ikasleek eskolan pasatzen duten denboraren % 43,7 jolastokian pasatzen dute, eta eremu horrek eskaintzen zituen heziketarako aukerak ez zituztela aprobetxatzen konturatu ziren.

Egoera horretatik abiatuta, jolastokiaren helburuak, arauak, zaintza eta antolaketa aldatu zituzten.

Jolastokia hiru eremutan banatzen dute, eta horietako bakoitzean material desberdinez osatutako kaxak jartzen dira. Adinaren arabera, materialak eta jolasak aldatuz joaten dira. Irakasle bat eta jantokiko begiraleen koordinatzailea arduratzen da jolasak eta materialak prestatzeaz eta antolatzeaz, eta astelehenero ematen zaie asteko "ordutegia". Ikasleen aldetik, gela bakoitzeko arduraduna bost minutu lehenago joaten da materialak bere gunean jartzera. Bera arduratzen da egun horretan zaintzeaz eta bukaeran gordetzeaz, eta egunero betetzen dute balorazio orria gelara itzuli aurretik.

Ikasleak astean zehar hiru eremu horietatik pasatzen dira txandaka. Ez dute derrigorrez proposatzen diren jolasetan aritu behar, hizketan egon daitezke edo beraien jolasak asmatu. Dena dela, beste batzuei dagokien materiala ezin dute erabili, edo programatutako jolasetan dabiltzanei ezin die trabarik egin.

2002-03 ikasturtean munduko jolasak proposatu zituzten, eta harrezkero hiru hilero aste bat horretara dedikatzen dute. Aurten, bestalde, mahaiko jolas kooperatiboak jarri dituzte liburutegian eta ludotekan.

Irakasleak zein ikasleak oso gustura daude antolaketa honekin. Irakasleak ez dira txoko bakar batean pilotzen. Badakite ez dutela "makinitarik" behar jolastokian lagunekin oso ondo pasatzeko. Eta irakasleek errazago eta askoz lasaiago egiten dute beren zaintza lana.



Ikasle etorkinak etxekotzen

Hernaniko La Inmaculada ikastetxean



Maite Martinez zuzendaria eta Maiteder Requejo Integrazio gelako irakaslea.

Ez dira nolanhiko kopuruak Hernaniko La Inmaculada ikastetxeoak: ikasleen % 30 etorkinak dira, eta 17-19 nazionalitate desberdin nahasten dira. Gizartean desilusio garaia bizitzen ari dira etorkin asko, errealitatea ez baita telebistan agertzen den bezain polita. Arrotza den herrialde batean bizimodua aurrera atera behar dute, eta baita euren seme-alabek ere. Denak eskolan biltzen dira, eta egoera horretan egosten ari denaren lekuko bat da Inmaculada ikastetxea.

Hernaniko mojen ikastetxera etortzen diren etorkin guztiak ez dira irailean hasten; ikasturtean zehar ere hasten dira, etorri ahala. Badakite une horretan nola egin harrera. Hasteko, etorri berriari proba bat egiten zaio maila

akademikoa ikusteko, eta horrela, zein taldetan sartuko den eta ikasle horrekin nola lan egingo duten erabakitzen dute. Itzultzailea behar badu, eskatu egiten dute. Ez badu behar, gelara bidaltzen dute eta Integrazio gelako irakas-

lea arduratzen da. Egun berean gurasoekin solasaldi bat egiten dute dokumentuak eta abar egiteko.

Gelara joandakoan, ikasleak nondik datorren azaltzen die gainerakoei, herrialdea mapan kokatzen dute, hango banderarekin egiten diote harrera... Ikasleak ohituta daude, askok egoera bera bizi izan baitute, eta interes handia agertzen dute. Etorri berria babestua sentitzen da.

Integrazio gela

10 urte arteko hurrekin ez dagoela arazorik edo zailtasunik dio Maite Martinez zuzendariak. "Gelan sartzen ditugu eta erabat murgiltzen dira. 15 egunean euskaraz hitz egiten hasten dira, eta ez dago inolako arazorik".

Adin horretatik aurrera egoera aldatu egiten da. "Askoz gehiago kostatzen





zaie egokitzea. Eragin handia dute dakarten maila kulturalak, familiaren kulturalak, jatorriak, familiaren egokitzeak... Egokitze epe bat eman behar zaie, eta hori errespetatzea funtsezkoa da euren bizi espazioa berreskura dezaten". Horregatik, Euskara, Gorputz Hezkuntza, Informatika, Musika, Ingelesa eta Matematika gela arruntean egiten dituzte gainerako ikasleekin batera (B eredu indartuan). Baina beste ikasgaietan gelatik irten eta Integrazio gelara joaten dira.

Hango irakaslea da Maiteder Requijo: "Gela honetan euskararen maila pixka bat jaitsi egiten da, eta hasieran gaztelaniaz egiten zaie. Edukiei dago kienez, euren mailaren arabera egiten da lan. Ikasliburuak ere gaztelaniaz zein euskaraz izaten dituzte".

Euskara eta gaztelania, gaztelania eta euskara. Dilema horren aurrean Maite zuzendariak irizpideak argi ditu: "Lehendabizi euren beharrei erantzun behar zaie: zein aukera eta baldintza-tzaile dituzten ikusi behar da, eta nola atera aurrera. Hizkuntza ereduaren gaitetik pertsona dagoela uste dugu".

Hori dena gaztelania dakiten ikasle etorkinekin. Baina beste batzuek hori ere ez dakite, eta kasu horretan, Integrazio gelara joan aurretik, itzultzaileekin egoten dira gelan daudenean.

"Horien kasuan, lehendabizi gaztelania irakasten zaie, eta gero Integrazio gelara joaten direnean hasten dira euskararekin" dio zuzendariak. "Kontua ez da gaztelania euskara baino garrantzitsuagoa izatea, baizik eta ez dagoela euskarazko itzultzailearik. Gaztelania dakiten txinatarrak, errusiarrak... badaude, baina euskararik ez dakite. Guk komunikaziorako hizkuntza bat nahi dugu, eta ez zaigu aukerarik gelditzen".

Itzultzaile gutxi, bai kopuruz eta bai denboraz

Orain dela hiru urte itzultzailea behar zuten 50 haur zeuden Gipuzkoan; gaur egun 200, eta jatorri askotarikoak: bulgariarrak, moldaviarrak, ukrainarrak, errusiarrak, uzbekistandarrak, mongoliarrak, txinatarrak, marokoiarrak... Hizkuntza horiek eta euskara dakizkien itzultzailearik ez dago.

Lehen sei hilabetean egoten ziren itzultzaileak haur bakoitzarekin, astean egun bat. Alegia, hutsaren hurrengoa. Eta orain, are gutxiago: hiru hilabete soilik. "Orain arte itzultzaile errusiar eta txinatar bana eduki ditugu" dio Maitek. "Uzbekistango ikaslearentzat ez dugu itzultzailearik eduki. Zorionez, etorri diren arabiarrek bazekiten gaztelania pixka bat eta ez dugu arabierako itzultzailearik behar izan. Normalean, itzultzailea joan arren, haren beharrean gelditzen dira ikasleak".

Baliabide falta

"Gaur egun laguntza bera jasotzen dute sei etorkin dituen zentro batek eta 80 dituenak: hezitzaile bat astean 23 ordurako. Laguntza bera dute; berdin dio etorkin kopuruak edota jatorri askotarikoak edukitzeak" azaltzen digu Maitek. Zorionez, badute abantaila bat. "Hemen komunitate bat bizi gara eta erretiroa hartutako ahizpak ditugunez, haiek laguntzen digute".

Urte hauetako esperientziarekin garbi ikusten dute pertsona bakoitza desberdina dela eta bakoitzarekin zer-bait berria asmatu behar dela. Ez dago denentzat balio duen eredurik. Ezin da sistema bat bilatu denentzat. Ikasle bakoitzak banakako arreta eskatzen du.





Familia etorkinekin lan egitea oso konplexua da

Familiak eta eskolak ildo berean jardutea garrantzitsua dela diote bi hezitzaileek, baina egiteko zaila dela ere ikusten dute. Etorkinen kasuan, familiaz baino amaz hitz egitea egokiago litzateke, ama baita garrantzitsua; aita egon daiteke, edo ez, edo orain bai eta gero ez. Etorkinen seme-alabek ordu asko pasatzen dituzte etxean bakarrik gurasoak lanean daudelako. Ondorioz, telebistan ordu asko, play-stationean goizaldera arte..., ez dago kontrolik. "Familia eta eskola ez goaz batera, eta hori nabaritu egiten da. Familian hezten da, eta eskolaren zeregina batez ere akademikoa da. Hezitzailea ere bai, baina familiak funtzionatzen ez duenean" dio Maitek.

"Guraso eskolek derrigorrezkoak izan beharko lukete" Maitederren iritziz. "Hemengo guraso eskolara ikasle ohien gurasoak etortzen dira, ez oraingo ikasleenak. Orduetegi arazoak ere handiak izaten dira bilerak egiteko".

Haurren barne mundua

Ikasleen arazo asko euren barruko munduarekin, duten historiarekin eta emozioekin lotuta daude. Horregatik hasi dira alderdi hori ere lantzen. "Akademikoki gaizki daudela ikusten dugu, ez dutela arretarik jartzen, ez dutela lanik egiten... Baina zergatik? Barruko arazoak ikusi behar ditugu laguntzeko, eta horretan hasi gara" zehaztu du zuzendariak. •

Nola landu erlijio aniztasuna gelan?

DBHko 3. mailako gela batean Erlijioa irakasten du Maitek. 19 ikasle daude, eta horietatik 10 Integrazio gelara joaten dira. Ekuadortarra, kubatarra, marokoarra, txinatarrak, moldaviarra, errusiarra, ukrainarra eta errumaniarra daude. Jatorriz Hernanikoak 8 dira. Kultur aniztasun handieneko gela da. Erlijioari dagokionez, ortodoxoa, katolikoa, musulmana, sintoista, protestantea, ebanjelista, mormoia..., nahiz eta errealitatean eurek paso egiten duten.

Nahaste-borraste horretan erlijio katolikoaren ikasgai-zerrendak ez du zentzurik. Noski, La Inmaculada ikastetxe erlijiosoan denez, ez dute ikasgai-zerrenda hori apurtzen, baina beste erlijioak eta kulturak berreskuratu eta lantzen dituzte. "Ekumenismoa lantzen dugu, hau da, batzen gaituena eta ez banatzen gaituena. Esate baterako, aitortzaren gaia lantzen dugunean, erlijio bakoitzaren barruan adiskidetasunaren sinboloak zein diren ikusten dugu: katolikoak aitortza egiten dute, musulmanak mezkita imanarekin hitz egitera joaten dira, beste batek bilerak egiten dituztela esan zuen, eta artzainak hitz egiten diela... Modu horretara, sinboloak partekatzen ditugu eta denak sentitzen dira garrantzitsu euren azaltzen".

Bi ikasle musulman eduki zituenean Korana ekartzen zuten eta hura lantzen zuten beraiek, gainerakoak Biblia lantzen zuten bitartean. "Ez dut sentitzen inolaz ere hori ikasgai-zerrendatik at dagoenik; errespetua landu behar da, desberdintasunak onartu eta batzen gaituzten gauzak landu".



Alboan fundazioa herrien elkartasunaren alde lanean

**ALBOAN Fundazioa Jesusen la-
gundiak duela hamar urte sortu
zuen Gobernu Kanpoko Erakun-
dea da, eta herrien arteko elkartasunaren alde ari da lanean. Munduaren Hegoaldeko herrialdeekin hainbat proiektu aurrera eramateaz gain, Iparraldean lana egitea ezinbestekoa dela uste du erakunde honek, eta hori dela eta, elkartasunerako hezkuntza gure inguru hurbilean zabaltzen eta guztien eskura jartzen dihardu.**

Bere baitan hainbat sail dauzka, hala nola, nazioarteko elkarlana, hezkuntza eta boluntariotza, komunikazioa, kudeaketa eta eragintza politikoa eta sareak. Dena dela, artikulua honetan hezkuntza alorrean egiten duten lana ezagutuko dugu.

Elkartasunerako hezkuntza

Errealitatea eraldatu ahal izateko, hori eraikitzen duten pertsonak trebatu beharra dagoela uste dute Alboanekok, horrela, jendartea aktiboagoa, kritikagoa eta solidarioagoa izateko aukerak ugaritzen baitira. Horretarako, giza garapena Hegoaldeko herrialdeetan soilik lantzearen ideia gaindituz, Iparraldeko eskola formalekin, ez-formalekin nahiz boluntarioekin egiten dute lan hainbat tresna hezitzailearen laguntzaz.

“Besteak beste, jarrera eta pentsamolde insolidarioak, pentsaera akriti-

koa, mobilizazio eta parte-hartze sozial urria eta injustizia dakarten egitura eta mekanismoak aldatzen saiatzen gara GGKEak Iparraldeko gure gizartean”, dio Nahia Intxaustik, Alboaneko elkartasunerako hezkuntza eta boluntariotza arloko kideak.

1998an, irakasleekin batera lan tal-

de bat sortu zen Alboanen, eztabaida gune bat, eskoletan garapen eta balioen inguruan sumatzen ziren beharren inguruan diagnostiko bat egiteko asmoz. Gogoeta horietatik abiatuta, ekarpenak eta proposamenak zehazten joan ziren. Horien ondorio dira gaur egun denon eskura dauden material hauek:

Erakusketak	<ul style="list-style-type: none">- “Ezagutu munduko arazoak, ikasi elkartasuna zer den.”- “Kanbodia, sufrimenduaren eta itxaropenaren artean”- “Borondatezko lana, pertsona guztiei zabaltzen zaien atea”- “Indiarekin aurrez aurre”- “Barneratu Indian Adivasiekin”- “Pertsona errefuxiatuak eta desplazatuak ere eskubideen jabe.”
Ikus-entzunezko materiala	<ul style="list-style-type: none">- “Adivasi, herriaren berpiztea” (India)- “Aguaruna, Huambisa lurraldea” (Peru)- “Eskubideak eta betebeharrak. Eskubideak eta erantzukizunak”- “Auzolan. Parte-hartzea”- “Ahimsa. Gatazken konponketa”- “Janavak” (aniztasuna)
Unitate didaktikoak	Ikus 32. orrialdean
Diziplina anitzetarako proposamenak	Ikus 33. orrialdean
Aholkularitza eta trebakuntza	<ul style="list-style-type: none">- Elkartasunerako hezkuntza- Borondatezko lana- Errealitatearen analisia- Globalizazioa- Elkartasuna

Unitate didaktikoak

Elkartasunerako hezkuntza eskolan txertatzen

Alboanek, beste material batzuen artean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako sortu dituen hezkuntza materialak dira. Elkartasuna eta, oro har, balioak eskolen eguneroko bizitzan txertatzeari buruz gogoeta egin ondoren, hainbat irakasgaitarako unitate didaktikoak sortzea erabaki zuten. Horretarako, ikasgaietako irakasleekin batera, curriculum ofiziala aztertu zuten, eta berau elkartasuna sustatzen duten kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiz “blaitu” eta erlazionatu zuten. Dena dela, irakasgai horietatik aparte ere erabilgarriak dira eta erraz egoki daitezke beste hezkuntza eremuetara.

ZOR ZOROA	GIZA HARREMANAK	ZIENTZIA ETA EBOLUZIOA	LURRA BEGI-BISTAN	LERRO ARTEAN IRAKURTZEA	ZENTZUMENAK IRAKASLE
Zorpetzearen esanahia, norkez eta nori zor dion eta kanpo zorraren beste hainbat faktore eta eragin hausnarrarazteko materiala da, ekintza proposamen ugariarekin.	Estatu eta hiritar kontzeptuak, estatuaren betebeharrak eta hiritarren eskubide eta betebeharrak erabiltzen dira mundu mailako lau gatazka aztertzeko. Gatazka horien sorburuak, eragileak eta bake plan alternatiboak lantzen dira.	Zertarako balio du zientziak? Ekonomia, gizarte edo kultur faktoreek ez al dute adierazten zientzia? Biologia lantzeko bestelako ikuspegia dugu hau. Material honen bitartez Zientziaren teoria batzuk zalantzan jarriko dira.	Talde lanen bitartez, Iparraldea-Hegoaldearen arteko harremanak lantzen ditu, hiru ardatz hauek oinarri hartuta: Iparraldea-Hegoa gatazkaren oinarritzko ezagutza, Ipar Amerikaren giltzarri historikoa eta merkataritza-neokolonialismoa.	Mundu globalizatuan gizarte komunikabideek duten zeregine-tik abiatuz, telebista ohiturak zein prentsa aldizkariak aztertzeko aukera ematen du material honek. Tartean, emakumearen irudia eta etorkinen gaia jorratzen ditu.	Ikusmenarekin, dastamenarekin, entzumenarekin, usaimenarekin eta ukimenarekin begiratu eta irakurtzeko eta gure emozioak behatzeko aukera ematen duen materiala. Artearekin eta gure sentazioei izena ematearekin lotutako ariketa sorta.
<i>Irakasgaia:</i> Ekonomia, Geografia ekonomikoa	<i>Irakasgaia:</i> Filosofia	<i>Irakasgaia:</i> Biologia	<i>Irakasgaia:</i> Geografia ekonomikoa	<i>Irakasgaia:</i> Hizkuntza	<i>Irakasgaia:</i> Hizkuntza eta Literatura

Irakasleak protagonista

“Alboanen hasieratik argi ikusi zen irakasleekin elkarlanean lan egin nahi zela eta hezkuntza materialak beraiek egin behar zituztela. Horregatik, Alboanek, proiektua koordinatu eta aholkularitza eskaini du, baina irakasleak izan dira proiektuko benetako protagonistak. Garrantzitsua da hori, beraiek motibatzen eta sensibilizatzen, eta baita beste irakasleentzat eredu izan daitezkeelako ere”, dio Nahiak.

Beraz, Fundazioak lan egiterako orduan argi izan duen gakoak da irakasleak gai horietan inplikatzeko eta motibatzea. “Materiala egitea bezain garrantzitsua da beraiek ikasgeletan lantzea, ez guk, izan ere, irakasleek sentitu behar dute hori egiteko beharra eta ardura. Beraiekin lotura zuzena eduki nahi izan dugu beti”, dio Nahiak. “Hala, uni-

tate didaktikoen proiektu hau burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 10 bat irakasle eta hezitzaile inplikatu dira”. Hauek metodologia berri-tzailea erabili dute, dinamikoa eta ikasle-lean parte-hartzean oinarritzen dena; hala nola, rol playing-ak, eztabaidak eta antzerkiak. Funtsean, ekintzen oinarrian hausnarketa eta talde lana dago.

Materialgintzan lan ugari egin bada ere, horri zabalpena ematen beste hainbeste egin behar dela uste dute Alboanekoek. Izan ere, askotan eskolek ez dituzte materialak ezagutzen, eskolan gauza asko jasotzen dituztelako. Horregatik, beraiekin kontaktu pertsonala izaten saiatzen gara. Behin gure materialak ezagututa, askok interesgarri ikusten dute materiala eskolan izatea.

Materiala eskolan sartzen den unetik, eskola horiekin harremana egon-

korragoa izaten saiatzen dira, behar den laguntza emateko eta materialaren egokitzapena ebaluatzeko. Irakasleek nola lantzen dituzten aztertzen dute, ea zein den benetako aplikagarritasuna, gabeziak eta lorpenak zein diren eta abar.

Edonola ere, aberasgarriagoa deritzote balioen gaia ikastetxe osoan islatuko den proiektu gisa lantzeari, eta ez soilik ikasgai zehatz batzuetan lantzeko, tutoretzetan, erlijioan edo alternatiboan, esaterako. Horregatik, eta aurreko proiektuarekin Lehen Hezkuntzako beharrak ase gabe gelditzen zirela kontuan hartuta, irakasle guztiak barne hartzen dituen eskola proiektu baterako materiala sortzeari ekin zioten, hain zuzen ere, diziplina anitzetan landu daitekeen proposamen globala sortzeari.

“Munduko hiritarrok: gure munduko protagonistak gara”

Eskolako beharrari erantzunez, herritartasun gaia ikastetxeetan lantzeko hezkuntza proposamena da “Munduko hiritarrok”. Herritartasuna lantzeko oinarrizko hiru gai lantzen dira hainbat materialekin; eskubideak eta erantzukizunak, gizartean parte hartzea eta gatazkak konpontzea. Ez dira fitxekin lantzeko gaiak, eztabaidak eta talde lana bultzatzen duten metodologia saioak baizik.

Azkenaldian hainbeste entzuten den gaia denez, Alboan fundazioak herritartasunari buruzko ikuspegi

propioa eskaini nahi izan du. “Herritartasunaren ideia bultzatu nahi dugu, eta hori dela eta, munduan beste herrialdeekin interdependentzian gauden herritarrok garen ideia lantzen dugu. Ondorioz, gure inguru hurbilean (etxekoekin, eskolakoekin, herriarekin) nahiz beste herrialdeetako pertsonekin errespetua, elkartasuna nahiz dugun ardura landu nahi ditugu, besteak beste”, zehaztu du Nahiak. Material honetan, hiritarrok izan behar ditugun balioak eta jarraitu behar ditugun jarduerak lantzen dira, esan bezala, ingurune hurbiletik ingurune zabalago batera aplikatuz.



Lantzen diren ideia nagusiak

“Eskubideak eta betebeharrak”	“Gizartean parte hartzea”	“Gatazkak konpontzea”
<p>Pertsona orok bere eskubideak eta betebeharrak dauzka. Gure betebeharrak betetzen ez ditugunean beste pertsona batzuek euren eskubideak galtzen dituzte, eta beraz, gutxi batzuen eskubide bilakatzen direnak, pribilegio bihurtzen dira.</p> <p>Ikasgelan eguneroko kontuekin lantzeko moduko gaia da hau, haurrak besteen eskubideen eta gure betebeharren kontzientzia hartzea da helburua. Ingurune hurbiletik hasita maila globalago batean aplikatuz, natura, kontsumoa, aniztasuna eta beste hainbat gai jorratzen dira.</p>	<p>Bizi garen munduko protagonistak izateko eta pertsona ororentzako mundu duin eta justuagoa eraikitzeko aukera lantzea da material honen azken helburua. Jolas kooperatiboekin edota beste baliabide batzuekin talde lana sustatzen da, errespetua eta desberdinen elkar balorazioa sustatuz.</p> <p>Gure inguruneke hainbat gaitan parte hartzea bultzatzen du, gertuko eremuetatik hasi eta eremu zabalagoetara. Besteen iritziekin bizitzen ikasi behar dugu, eta horretarako funtsezkoa da parte hartzea.</p>	<p>Askotariko pertsonak eta iritzia elkartzen diren unean, gatazkak sor ditezke, eta hiritarren zeregina da horiek konpontzeko bideak aurkitzea. Aurreko materialetan bezala, lan ildoak eremu gertuetatik eremu zabalenera hedatzea da, ikasgeletako arazoetatik mundukoetara.</p>

Apirila bukaeran hezkuntzaren aldeko munduko kanpaina

Urtero burutzen den kanpaina hau hezkuntza eskubidearen alde egiten da munduko 120 herrialdetan, oraindik ere 125 milioi haur daudelako munduan eskolara joateko aukerarik gabe. Nazioarteko koalizio bat denez, munduko hainbat herrialdeetako sindikatuak, irakasleak, mugimendu sozialak zein GGKEak daude inplikatur. 1999. urtetik ari da kanpaina lanean eta 2005. urtean bost milioi pertsonak hartu zuten parte. “Guri ez zaigu kanpaina puntua-

lak egitea gustatzen, ildo berezirik jarraitzen ez dutenak, baina kanpaina hau garrantzitsua ikusten genuen, mundu mailan egiten delako, urtero-urtero jarraian egiten delako eta politikoei euren hartutako konpromisoak betetzeko eskatzen diegulako, presio politikoa eginez”, azpimarratu du Nahiak. Aurtengoan, ALBOAN fundazioaz gain Intermon eta antolatzaile lanetan jardun da, eta sindikatu batzuk ere kolaboratzen aritu dira.

Urtero apirileko azken astean egiten da, herrialde guztietan. Ikastetxe bako-

tzak unitate didaktiko bat lantzen du eta, ondoren, ekitaldi bat egiten da politikoei, haurrek gai hauekiko duten iritzia eta dituzten eskabideak eurei aurkezteko.

Aurten, “neska mutil guztiek behar dituzte irakasleak” izan da lema, eta haur guztiak eskolatzeko dagoen irakasle beharra eta horien prestakuntzaren garrantzia azpimarratu nahi da. Ildo horretatik, eskaera garbia egin dute haurrek: berehalako neurriak hartu behar dira 2015erako mundu osoan hezkuntza errealitate izan dadin. •

Erljioak ba al du lekurik ikastetxe laikoetan



Eskola laikoa eta erlijioa

Ezinbestekoa deritzot, lehenik eta behin, eskola laikoaren eta Erljioaren irakaskuntzaren artean, nire ustez, egon behar duen harremanari buruzko azalpena emateari. Eta hasiera moduan esan nahi dut oso garrantzitsua iruditzen zaidala gai bati heltzea: heziketa sistema baten barnean, ikastetxe pribatuaren eta publikoaren artean, egon behar duen harremanari, alegia. Berezik azpimarratu nahi nuke bateanizara osagarria duela Erljioak; bestean, berriz, autonomia. Nire aburuz, printzipioz, objektiboki independenteak izan beharko lukete batak bestearengandik. Beste batzuen ustez, aldiz, ikastetxe pribatuak publikoak historian izan dituen gabeziak estaltzeko zeregina besterik ez du izan behar; hala, herritar guztiei heziketa jasotzeko duten eskubidea ziurtatu beharko luke, ikastetxe publikoa guztiengana iristen ez denean.

Hori esanda, gehitu nahi dut, ikaskuntza erlijiosoak edo ez-erlijiosoak aukeratzeko eskubidea —eta ez soilik juridikoa edo formala— onartuta dagoela, eta ezinbestekoa dela aukera hori egiteko modua egotea; beraz, ikastetxe laikoak eta ikastetxe erlijiosoak, biek,



Jose Maria SETIEN

DONOSTIAKO GOTZAIN OHIA

egon beharko dute aukeran. Baina horrek ez du esan nahi azken horiek Elizarenak izan behar dutenik.

Ikastetxe laikoaren testuinguru edo kontestu zehatzari begiratuko diogu, beraz. Bertan, ikastetxe laikoaren eta erlijioaren arteko *rincontro* baterako aukera proposatzen da. Horretarako, balio etiko batzuk aurkeztuko lirateke, hain zuzen, historian zehar erlijio motibazio batez lagundu izan diren balio etikoak. Motibazio horrek, dirudienez, baztertuta egon beharko luke, printzipioz, ikastetxe laiko batean. Horrega-

tik, nire ustez, argi eta garbi adierazi beharko litzateke zein izan beharko litzatekeen aipatutako *rincontro* horretara joz erdietsi nahi den helburua.

Egia esan, nik neuk ez dut asmatzen zein izan daitekeen helburu hori. Agian, derrigortasun etikoari hertsiki loturik dagoen beharrezko motibazioa onartzeari gutxieneko laguntza ematea; hain zuzen, nola edo hala kontzientea den erlijio sentimendu batetik sortutako motibazioa, bizi garen ingurune aztarna kultural moduan bizirik iraun duena, onartzen laguntzea. Hala, Erljioaren aurkako jarrera gutxiasko indartsua dela tarteko, badirudi erdietsi nahi den helburuari begira kaltegarria izan daitekeela ikastetxe laikoan erlijio baliabidera jotzea.

Ikastetxe publiko laikoa eta erlijio etika

Nolanahi ere, kontua oso bestelako moduan aurkez dezakegu, baldin eta kontuan hartzen badugu ikastetxe laikoaren izaera “publikoa” edo “gizarte ekimen” izaera. Izan ere, gizarte talde baten aukeraren emaitza izan baitaiteke ikastetxe laikoa, heziketaren alorrean askatasunez pentsatzeko daukaten eskubidearen emaitza. Eta, ondorioz,

“gizarte ekimeneko” ikastetxe laikoak izango lirateke. Estatuak nahitaez gutzientzat ikastetxe “publiko” laikoa inposatuko balu, egoera zeharo desberdina izango litzateke. Hezkuntza bateratu laikoaren hipotesi honetan —gizarte laiko baten egitasmoa oinarrian izanda, guztioi inposatutakoa, eta ikastetxearekin modu koherentean jokatuz— planteatu ahal izango litzateke, hain zuzen, orain hizpide dugun *rincontro* delakoa.

Egia esan, zentzuzkoa litzateke pentsatzea gure gizartean, oraindik ere erlijioak bere garrantzia duen eta, beraz, datu hori baztertzea ezinezkoa den gizartean, ikastetxe publiko laikoa derrigorrez inposatuko balitz—baita hezkuntzan erlijioaren aukeraren aldeko sektoreentzat ere—, ezinbestean sortuko litzatekeela gatazka. Gatazka horri hemen iradokitzen den *rincontro* baketsu batez aurre egiten saiatuko litzateke, hain zuzen. Sustrai erlijiosoak dituzten eduki etikoak irakatsi, eta horrela erlijioari nolabaiteko txokoa eman, ikastetxeetan Erlijioa kontuan hartzen dela adierazi nahi izango litzateke. Egia esan, ni ez nengoke ados gisa horretako proposamenarekin. Eta arrazoia azalduko dut.

Etikan bi alderdi bereizten ditut: balioen edukiena batetik; eta derrigortasunarena, bestetik. Horixe baita balio etikoenezagarrinagusia. Kristau ikuspegiaren oinarritutako etikari dagokionez bederen, nola dimentsio bat, hala bestea, gizakiari eman nahi zaion zentzuaren eta proiektuaren ulermenetik ezin bananduzkoak dira. Beste modu batera esanda, etika kristauaren ulermenaren —nola bere edukiei begira, hala bere derrigortasunaren arrazoi formalarri begira— hertsiki loturik dago kristau fedearrekin. Eta heziketaren eremuan ere horixe adierazi beharko da.

Hala izanda, erraz uler daiteke kristau tradizioaren eduki etikoa ere, hau da, erlijiozkoa, ez etortzea bat soil-soilik zibila den etika baten edukiekin, hots, irakaskuntza laikoari dagokion etikaren edukiekin. Izan ere, Etika ulertzeko modu baten eta bestearen arteko

desberdintasunak azaltzean, ezinbestekoa litzateke bizitzaren zentzua ere azaltzea. Kristau etika izango balitz, erlijio gaiak ere landu beharko lirateke nahitaez. Eta, hori, jakina, ez litzateke oso egokia izango ikastetxe laiko bantentzat. Izan ere, bere printzipioetan oinarrituz, erlijio gaia zuzenean lantzeko aukera baztertu egin beharko luke.

Horrenbestez, ikastetxe laiko bat aukeratu eta erlijio heziketa modu guztiak baztertu nahi dituztenen, eta, bestetik, ikastetxe laikoa aukeratuagatik, etikaren bitartez erlijioak tartea izatea ziurtatzea nahi dutenen arteko *rincontro* hori ez zait ez koherentea ez egokia iruditzen heziketa zentro bati begira. Erabat abstraktuak diren proposamenetan egin daitezkeen kontzeptu bereizketak, nire ustez, ez datoz bat trebakuntza eta garapen prozesuan nortasuna garatzeari begira dagoen heziketa proiektu batek eskaini behar duen barne harmoniarekin eta batasunarekin.

Balio etikoetan heztearen oinarritzko printzipioak

Heziketari buruz ari garelarik, ezinbestekoa da gutxienez bi alderdiri erreparatzea; ondo bereizi beharreko bi alderdiri, hain zuzen.

Bata, alderdi antropologiko-filosofikoa da, edo hobeto esateko, teorikoa, heziketa proiektu moduko bati buruzkoa, alegia. Bertan, heziketa jardueraren bitartez erdietsi nahi dugun helburua zein den definitu beharko litzateke. Ikuspegi honek, bereziki, buruan izan behar dugun pertsona “eredu” edo mota osatu beharko luke. Hartara, hezitzaile garen aldetik, eredu horren arabera jokatu beharko genuke.

Bigarren alderdiak, berriz, bitarteko pedagogikoak bilatzea eta atontzea du xede, edo bestela esanda, bakoitzari praktikan egokituz, finkatutako helburua erdiesteko erabil ditzakegun baliabideak bilatzea eta atontzea.

Nire aburuz, behar-beharrezkoa da bi dimentsioak elkarrekin lantzea. Alabaina, ez dakit hala gertatzen ote den. Behar diren bitartekoak izan gabe helburuak finkatzea, zertarakorik jakin ga-

Ikastetxe laiko bat aukeratu eta erlijio heziketa modu guztiak baztertu nahi dituztenen, eta bestetik, ikastetxe laikoa aukeratuagatik, etikaren bitartez erlijioak tartea izatea ziurtatzea nahi dutenen arteko *rincontro* hori ez zati ez koherentea ez egokia iruditzen.



be, bitartekoak ez izatea bezain alferrikakoa iruditzen zait.

Horrez gain, heziketa bikain bat lortzeak berez duen zailtasunak elkarlana eta lankidetzaz eskatzen ditu, horiek izan gabe nekez erdietsiko baikenuke lortu nahi dugun helburua.

Gizakiaren komplexutasuna eta aberastasuna

Gizon-emakumeak hezteko —eta, bereziki, balio etikoetan hezteko— lehenik “pertsona” zer den jabetu behar dugu eta bere aurrean behar den moduan “kokatu”, pertsona delako —bestetik gabe— zor zaion errespetua aitortuz eta era berezian, gainera, pertsona hori hezigai baldin bada. Ezinbestekoa da bere ahultasuna onartzea, eta baita izan dezakeen aberastasuna aintzat hartzea ere, hezitzaileak onartu eta sustatu beharreko garapen aukerak baitira.

Ageri-agerikoa dena esan dugu, baina horrexek, hain zuzen, sustrai-sustrai arazo baten aurrean jartzen

Ez da bidezkoa hezitzaileak egituratzea (programatzea)

hezigai duen pertsona. Heziketa zeregina

nortasuna garatzeko prozesuari emandako laguntza gisa ikusi beharko genuke, errespetua eta begirunea abiapuntu izanik.

gaitu hasieratik bertatik. Ez da bidezkoa hezitzaileak egituratzea (programatzea) hezigai duen pertsona. Gizakiak bere barnetik osatu behar du bere burua, hau da, heziketa prozesuan barrera pixkanaka-pixkanaka bere buruaz jabetzen joango den kontzientziatik. Denok ezagutzen ditugu ikasleen nortasuna egituratzeko finkatzen diren heziketa sistemei —ideologiaren eta bostere ekonomiko, politiko eta baita erlijiosoaren arabera finkatutakoei ere— egiten zaizkien kritikak; beren ideologia eta interesak transmititzeko bitarteko besterik ez baita horientzat hezkuntza. Bestelakoa izan behar du pertsonaren berezkoa helburu duen heziketak: bakoitzaren kontzientzia abiapuntu duen giza aberastasuna, hain zuzen.

Esan nahi dudana laburbilduz, heziketa zeregina nortasuna garatzeko prozesuari emandako laguntza gisa ikusi beharko genuke. Prozesu hori egiten baitoa hasiera-hasieratik, hezi nahi dugun pertsona orengan. Eta ez genuke heziketa ikusi behar, hezitzaileen eskura jarritako bide pedagogikoen eragin eta nagusitasunaren ondo-

rioz, bakoitzaren izaera bere nortasunaren kanpotik egituratzeko aitzakia gisa. Gizon emakume bakoitzari erabateko begirunea edo errespetua zor zaio; eta gizakiaren ahultasuna zenbat eta nabarmenagoa izan, orduan eta begirune handiagoa eta sakonagoa zor zaio.

Baina, era berean, kontuan izan behar dugu gizakia txiroa, ahula dela, ez soilik fisikoki, baizik eta baita bere moralari, edo, bestela esanda, bere espirituari dagokionez ere, bere kontzientzia eta askatasunetik abiatuta bere buruaren jabe egiteko gauza den neurrian. Izan ere, ezin bailiteke pentsa, gizakia bere osotasunera iritsiko denik naturazko senak eskatzen diona burutuz, animaliek egin ohi duten moduan. Horregatik, gizakiak, bere ahultasuna kontuan hartuta, nor izatera iritsiko bada, zabalik egon behar du kanpotik jasotzeko eragin guztien aurrean, askatasunez bere nortasuna garatu nahi duen gizakia denez gero.

Nortasunaren heziketaren dimensio bikoitz hori bateratzeko modua ezin da behin betiko definitu. Horri egokitu behar diogu, beraz, “nortasunaren garapena” hitzekin esan nahi duguna, sarritan, hitz horiekin adierazten ari garenaz jabetzen ez bagara ere. Bide-


batez, kontuan hartu beharko ditugu heziketa zentrotik eta eskolako zereginaren kanpotik hezkuntzak jasotzen dituen eraginak ere. Baina egia esan, ikaslearekin modu egokian jokatu nahi duen hezitzaileak, gizabanakoaren duintasunari begirako errespetuarekin jokatzeko duenak, alegia, aztergai dugun ezaugarri bikoitz honi erreparatu beharko dio une oro: gizakiaren berezko askatasunari eta berarekiko eraginari, jatorrizko duen txirotasuna kontuan hartuta. Horri, laguntza pertsonalizatua edota banan-banako laguntza dei diezaiogez.

“Bateratu” kontzeptua apropos erabili dut, nahiz eta “orekatu” hitza ere erabil nezakeen. Horrekin adierazi nahi dudanak hezitzailearen osagarri izan beharko luke, gizakiaren beraren aberastasun edo konplexutasuna oinarrian izanda.

Adierazi nahi dut heziketak kontuan izan behar duela, gizakia berez dela izaki irekia, era askotan eta konplexuan adierazten dena. Horrenbestez, hezitzaileak bere gurarien arabera jokatuko balu, eta heziketa zeregina aurrera eramatean bere ideologia edo interesei begira ariko balitz, era askotako irekitasun hori ixteko arrisku itzela legoke. •



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

ekaina

berriak

Esperientzia interesgarriak Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen V. Jardunaldietan



Parte-hartzaileak eta antolatzaileak, denak gustura gelditu dira aurtengo **Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen V. Jardunaldietan**. Gipuzkoako ikastetxeetan aurrera eramaten ari diren hainbat eta hainbat esperientzia eta proiektu eman dira ezagutzera, eta elkarren berri izateko balio izan dute beste behin ere.

Arantxa Laka Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde ordezkariak irekiera ekitaldian esan zuen moduan, "hezkuntza prestakuntza eta berrikuntza proiektuei buruzko deialdiak oso tresna egokiak dira ikastetxeen barneko lanerako, eskola komunitatearen koheesionerako eta beste ikastetxe batzuekiko elkarlanerako".



Marisol Uria, Tontxu Campos eta Arantxa Laka irekiera ekitaldian.

Urtez urte proiektu berritzaileak gehituz doazela erakusten dute datuek: 2005-2006 ikasturtean 168 prestakuntza proiektu, 318 jarduerarekin batera, 7 berrikuntza proiektu global eta 253 berrikuntza proiektu eraman dira aurrera Gipuzkoako ikastetxeetan.

Horietako batzuk aurkeztu dira jardunaldietan lau arlotan banaturik edo sailkatuta: guztiontzako eskolarantz; dimentsio europarra eta ikasleen eta irakasleen kompetentziak; hizkuntzen trataera; eta IKT, zientziak eta garapen

iraunkorra. Guztira 450 lagunek hartu dute parte. Jende gehien bildu duen gaia eskola inklusiboari buruzkoa izan da.

Lehenengo hitzaldia Jurjo Torres A Coruñako Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolaketa katedradunak eman zuen honako gai honen inguruan: "Jakintza eta informazio gizartearen irakasleriaren papera aztergai". Gaur egungo gizartea azaltzen duten 16 aldagai aipatu zituen, eta horrekin batera, eskolaren eta irakasleen funtzioak zein izan behar duen.

Dimentsio europarrari eskainitako gunean Matti Meri Helsinkiko Unibertsitateko irakasleak Finlandiako eredu azaldu zuen.

Hizkuntzen trataerari zuzendutako gunean Uri Ruiz Bikandiren hitzaldian gaur egungo hizkuntz ereduetatik haratago zer dagoen aztertu zen.

Beste zenbait hitzaldirekin batera, esperientzien eta materialen aurkezpenek ere arreta eta interesa piztu zuten. Horiei denei buruzko informazio gehiago jardunaldien blogean edo bitakoran aurkituko duzue, www.elkarrrekin.org web orrian.



Jurjo Torres A Coruñako Unibertsitateko katedraduna hitzaldia ematen.

Hik Hasi udako topaketak

Hainbat ikastarotan izena emateko aukera

Hik Hasi Udako Topaketen eskaintza zabal bezain anitzak erantzuna ere halakoa izan du. Beste behin ere 600 hezitzaileen bilgune izango da Donostia uztailaren 4, 5 eta 6an. Hiru goizetan egin-go dira ikastaroak, eta arratsaldeetan interesa duen orori irekitako saio irekiak izanen dira aukeran.

Zein ikastarotan eman daiteke oraindik izena?

Matrikulazio epea amaitu bada ere, ikastaro batzuk ez dute kopuru mugaturik edota mugatutako batzuetan oraindik bada lekurik. Beraz, horietan izena eman daiteke. Zein dira?

2. Ahozkotasuna
5. Nola landu elkarbizitza
7. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak

8. Dibortzioa eta eskola
9. Harremanak gelan
11. Coaching
13. Ordenagailu gelara?
16. Linux
22. Ipuinak irakurri-kontatu
23. Disgrafiaren tratamendua
26. Antzerkia
29. Jolas kooperatiboak
30. Birziklatuz sortu
31. Musika Hezkuntza Berezian
33. Biodantza

Arratsaldeetan saio irekiak

Uztailak 4, astearta
Anorexia eta bulimia. Zer egin dezakegu hezitzaileok? Elikadura portaera arazoak.

- * Agurme Juldain. Psikologoa.
- * Maddi Arrazola. Psikologoa eta elikaduran diplomatua.



Uztailak 5, asteazkena

Antzerkia eskolan

“Niko eta Periko” antzezlanaren aurkeztuko dute eta ondoren elkarriketa egongo da. Zer egin, nola, zertarako... antzerkia eskolan?

* Joserra Fachado. Aktorea.

* Dabid Errasti. Aktorea.

Izena emateko eta informazio eguneratua izateko, jo www.hikhasi.com webgunera edo 943 371 408ra.

Euskal eskolak euskal egutegia

Datorren ikasturterako egutegia egiteko unea iritsi denean, Lea-Artibaiko ikastetxeetako ordezkariak euskal egutegiaren aldeko hautua egiteko deia luzatu dute. Sortzen-Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak, LAB eta EHBK bat egin dute proposamenarekin. Espainiar eta frantziar egutegi ofizialek ezartzen dituzten jaiei uko egin eta beste batzuk aukeratzeko urratsak egiteko deia luzatzen dute. Iaz sei ikasleek ofizialki ireki zituzten ateak abenduaren 6an. Gainerakoak ere gauza bera egitera animatu nahi dituzte.

Irakasleen etengabeko prestakuntzaren garrantzia azpimarratu dute Sarean Elkartearen XX. Topaketetan

Maiatzaren 11 eta 12an Donostian egindako Sareanen topaketetan irakasleen prestakuntza izan zen gai nagusia: bai hasierako prestakuntza, bai etengabekoa eta bai ikastetxe eta irakasleen laguntza zerbitzuak.

Goi mailako Hezkuntzaren Gune Europarrak bultzata, irakasle ikasketak urtebete luzatuko dira, eta ondorioz, praktikak egiteko denbora luzatu egingo da. Aukera hori interesgarritzat jotzen dute, praktika errealak egiteak ezagutza eta eskarmentu gehiago ematen duelako. Ildo horretan, Sareanek irakasle eskolekin duen harremana estutzeko ahalegina egingo duela adierazi du.

Bestalde, ikasleen curriculumean euren gaitasunak lantzeari ematen baldin bazaio garrantzia, irakasleen prestakuntzan ere hori lehenetsi behar dela uste dute. Hori bideratzeko, administrazioak baliabideak jartzea eskatzen dute.

argitalpenak



Kea airean bezala

Imanol Azkue
ELKAR

Lionel eta Kris harrera-etxe batean bizi dira. Zaindari paregabea dute, baina, beren egoera "normala" ez dela konturatzen dira, eta beste haurrentzat arruntak diren gauzekin egiten dute amets. Idazleak, fintasun handiz eramaten du irakurlea ipuinean barrena, orain hunkituz, hurrena irribarrea ateraraziz •



Euskal kostaldeko biodibertsitatearen eskuliburua EUSKO JAURLARITZA

Ozeanoan, bizitza hasi zen lekuan, izaki mikroskopoetatik hasita, inoiz ezagutu diren animalia handienak aurki ditzakegu: zetazeoak. Honako gida honek gure itsasoetako izaki aniztasunaren berri ematen digu, ornogabe, arrain, dortoka, hegazti, pinipedio eta zetazeoak barne •



Elkarren gustukoak gara!

Juanolo
TANDEM EDICIONS

Garen modukoak garena, denok dugu norbait gustuko eta norbaitek gustuko izango gaitu. Horixe da liburu honen mezua. Askotariko giza harremanak aurki ditzakegu eta hori erakutsi nahi zaie haur eta gazteei. Kattalingorri lesbiana, gay, bisexual eta transexual bulegoak bultzata argitaratu da euskaraz •



Immigrazioa eta arrazismoaren gainditzea ADARRA

2005eko azaroan Adarrak "Immigrazioa eta arrazismoaren gainditzea" jardunaldiak egin zituen, eta haren laburpena eta ondorioak bildu dituzte. Besteak beste, ikasle etorkinen banaketari eta kultura dilemei buruzko iritzi batzuk eta arrazakeria gainditzeko erraztasunak emango lituzkeen ekin-tza batzuen laburpena agertzen dira •



Aisia biziz 7. zenbakia, 2006ko udaberria URTXINTXA

Emozioak eta adimen emozionala gero eta garrantzi gehiago hartzen ari dira, eta mundu horretako atek irekitzen ditu zenbaki honek, hainbat adituen elkarriketekin eta adimen emozionala lantzeko tresnak eta tailerrak proposatuz. Horrez gain, ele-mele tarte berrian aisialdiko heziketaren egoera eta hezitzaileen lana ditu aztergai •



Bat soziolinguistika aldizkaria Euskararen egoera Nafarroa Garaian SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Gai nagusi horren barruan Nafarroa Garaiko euskararen egoera orokorrari buruzko lau artikulua agertzen dira zenbaki honetan. Ondoren, lau arlotako egoera da aipagai eta aztergai: administrazioa, hezkuntza, komunikabideak eta gizarte mugimenduak •

... goza nazazu gehiago

Hizkuntzaren transmisioan familia da gakoa



**Helena Baraibar eta
Kristina Boan**
Ikastolen Elkarte

Sortu berria den umeari, biziko bada, hainbat gauza eman behar zaio: maitasuna, arreta, elikadura, jantzia... bai eta hizkuntza ere. Hizkuntza gure bizitzaren lehen unetik inguruarekiko harremanean ezinbesteko tresna da eta haurrak gurasoekin eta ingurukoekin komunikatzeko, beharrak adierazteko, jolasteko, hezteko... eta, oro har, bizitzeko ezinbesteko tresna du. Haurtzaroaren lehen urteetan familia denez bere mundu osoa, familia da biderik aproposena haurrak euskara ikas dezan. Etxean ikasiko duen hizkuntza haurraren lehena izanen da, haurraren lehen esperientzia afektibo eta kognitiboaren hizkuntza nagusia, alegia.

Beraz, haurraren hizkuntzaz pentsatzea haren heziketa osoaz, haren ziurtasun pertsonalaz eta gizartearekin izanen duen harremanaz pentsatzea da.

Hizkuntza ez ezik, hizkuntzarekiko interesa eta maitasuna ere irakats daitezke familia gunean eta horretarako, gurasoak dira haurraren lehen eredu, hizkuntzaren kalitatean nahiz erabileran.

Haurrari euskaraz mintzatzeaz gain, aita eta ama elkarren artean ere euskaraz aritzen badira, haurrari euskararen balio osoa transmitituko diote, euskara nonahi eta zernahiren gainean erabiltzeko hizkuntza dela, hain zuzen ere.

Familia hizkuntza ikasteko eremurik lehen eta garrantzitsuena da, beraz, baina ez bakarra. Haurrak etxean, familia giroan, ikasi nahi duen euskara gurasoen eskuetan dauden hamaika erabakik osatu eta sendotzen ahal dute. Familiarekin batera, umearen eta geroz gaztetxoaren hizkuntza eredu, bestelako eragileren esku ere egongo da: haurtzain euskaldunen esku, eskola eredu euskaldunaren esku, eskolaz kanpoko jardueretako begirale eta arduradunen esku... Horretaz gain, egun haurrak euskaraz jolastu eta ikasteko dituen produktuen eskaintza zabala da eta gurasoen aukerak, kasu honetan ere, hizkuntzarekiko maitasuna ekar dezake ondorio gisa.

Esan dezagun, txiki-txikitatik haurrak euskara ongi ikasiko duela bermatzea, geroan beste hizkuntza batzuk ikasteko erraztasuna ziurtatzea dela, alegia, eleaniztasunerako bidea eraikitzea eta irekitzea.

ZER EGIN

Nola eragin hori horrela izan dadin

Guraso askoren uste okerra da heziketa euskaraz jasotze hutsak euren haurrak euskaldunduko dituela pentsatzea. Heziketa munduan murgilduta gaudenok badakigu, ordea, eskolaren eta familiaren arteko elkarlana ezinbestekoa dela gazteak euskaraz bizitzera irits daitezzen.

Zentzu horretan, egiteko handiak dituzte beren gain eskoletako aginte organuek: artezkaritza batzorde eta zuzendaritzek. Eurei dagokie erabakitzea zein neurritan inplikaraziko dituzten gurasoak egiteko honetan eta zein estrategiaz baliatuko diren eurengana iristeko eta eurengan eragiteko.

Eskolak osatzen duen komunitatean euskararen normalizazioan adorez ariko diren Guraso batzordeak sortzea eta eskolako Hizkuntz Normalkuntzarako batzordearekin elkarlanean aritzeko bideak jorratzea, ohiko guraso bileretan gaiordenaren barruan familiak hizkuntzaren transmisioan eta erabileran kokatzen duen paperaz hitz egitea bezalako urratsak ematea ezinbestekoa dugu aurrera egiteko.

atzeko atetik

Eskola egunak



Enrique VILLARREAL
"El Drogas"

ABESLARIA

*Egunak,
estalitako mozej
eta irentsi ezineko zazpiko taulagatik
masailekoz beteak;
sotanadun apezeez,
galtza motzez eta txandalez beteak.
Belaun gainetik goragoko gona tolesdunak,
ereserkiz eta otoitzez gastatutako arratsaldez,
"Villarreal, ordubete gehiago gelan"
eta larrututako baloiari emandako
ostikoz beteak.*

*Ikusi ez ditudan ibaiez eta
sekula eskalatuko ez ditudan mendiz beteak;
errege godoez, monarkez,
gorbatadun tutoreez;
formula aldrebesez beteak.*

*Lehen granoetako eta lehen kanpai jotzeetako egunak,
Latin "jantzitik" gimnasia putara
etxean notak erakustekoak.*

*Manifestazio eta barrikada egunak
"zergatik" alfer-alferrik galdetutakoak;
arbela borradoreaz zikindutakoak
eta kleraren hautsean bilatutako sukarra;
gaur goizean ez joateko.*

*Eskola egunak, joan-etorri gehiegi
azken txanpan
etsitzeko.*

* Erredakzioan itzulita



Estatu espainiarreko bost banketxe handik –Santander, BBVA, La Caixa, Popular eta Caja Madrid- 3.548 milioi euro fakturatu zituzten komizioetan urteko lehen hiru hilabetetan, hain justu Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2006 urte osoan gastatzea espero duen adina.

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura


hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

Jolasak opari

Bidaiazaleentzat edo erronkak gustoko dituztenentzat.
Jolastuz ikasi eta irakurtzen dibertitu nahi dutenentzat,

ARGIAren jolasak.



**Oparitu
itzazu!**

